

Elkarriketa:

JABI ASURMENDI >

“Telegramekin mugikorretarako ehun aplikazio euskaratzeko erregaia eman digu jendeak”

7.or



Sozioekonomia

Berrordainketa sistema salatzeke pentsionistak protestan 6. or.

Kirola

Ibone Sanchez, triatloilaria: “Kirolak bizi ilusioa eman dit” 12. or.

Aiaraldea

Laudiotik aterako da Saharara bidaltzeko EAEn bildutako janari karabana 5. or.



Iritzia:

TXUTXI
ARIZNABARRETA 2. or.
ITZIAR
LARRAZABAL 6. or.
KOLDO GILSANZ 7. or.
INMA ROIZ 10. or.
EGOITZ
BERNAOLA 12. or.
JULEN REKETA 11.or
AINHOA
COMAS 16. or

aiaraldea



Aiaraldeko
hamabostekaria
2014 /// Otsailak 13 ///
9 alea ///
Doan ///
www.aiaraldea.com

Amiantoaren ondorioz 12 pertsona hil dira azken hamar urteetan eskualdean



Lau ikastetxek salatu dute Gasteizen Kutsadura elektromagnetikoa



Artziniegako Arteko Gure Ama eskolak, Urduñako Herri ikastetxeak, Laudio Latorro heziguneak eta Amurrioko Lukas Rey eskolak wifi eta bestelako uhinen aurkako protesta egin dute. Izan ere, otsailaren 6an eztabaidatu zen Eusko Legebiltzarrean kutsadura elektromagnetikoa mugatzeko testua.

Heziguneez adierazi dutenez, elektromagnetismoaren eragina bereziki arriskutsua daumeengan. Horregatik eskatu dute, besteak beste, ikasgeletan internet zerbitzua kable bidez eskaintzeko eta antenak ahalik eta urrunen ipintzeko.

AURKIKUNTZA HISTORIKOA: XVI edo XVII. mendekoa izan daitekeen sagardoa egiteko dolarea aurkitu dute Laudion. Araban industu duten lehena da. 10 or.

DENDA BERRIA LAUDION ESKAITZA PAREGABEAK

DENDA BERRIA YOIGO

Ezka, 3.

Tfnoa.: 944 062 279

yoigo



_iritzia



Txutxi
Ariznabarreta
INDEPENDENTISTA

_Leihotik

Hemen ez dago ezer naturalik

Zutabetxo hau Eskoziari buruz idaztekotan nengoen Arkaitz Belloren heriotzaren berri izan nuenean. Blokeatuta gelditu nintzen, bihotza kuzkurtuta.

Mila sentimendu bor-bor. Samina eta sumina. Etsipena eta haserre. Tristura. Elkartasuna. Maitasuna ... Ezin burutik kendu, ezin idatzi haxe besterik.

Arkaitz euskal gazteriarren aurkako errepresio gordinaren biktima, hamar urteko espetxe zigorra kale borroka ekintza bategatik. Bera eta bere senitateko eta lagunak, sakabanaketa politika ankerraren biktimak, etxetik mila kilometrotara hamairu urte luzeetan zehar. Euskal presoek aurkako suntsipen politikaren eta gorrotoaren biktima, behin eta berriro egundoko jipoiak funtzionarioen eskuetan, mota guztietako erasoak eta isolamendua. Injustiziaren biktima, zigorraren hiru laurdenak beteta izan arren espetxean bahitua.

Eta orain, bere heriotza "por causas naturales" izan dela entzun behar. A zer iskirio iraingarria! Nork esango dio bere amari kendu zioten hogeita hiru urteko seme gaztea hamairu urte geroago hilotz itzultzea naturala dela? Ez! Hemen ez dago ezer naturalik!

Lerro hauek argitaratu aururretik Arkaitzen heriotzari bere neurriko erantzuna emango diogula pentsatzen dut. Urtrrilaren 11ko konpromisoak ez zituela haizeak eramango espero dut. Bestela, gure epelkeriak Espainiar Estatuaren politika anker eta hiltzailearen konplize bihurtuko gaitu.



Irene
Etxeko langilea

Gazteak elkartu eta ezkondu egiten dira. Ondo egiten badute, agian urte asko emango dituzte batera. Nik ez dakit zergatik, baina bikote gazteak ez dute elkar aguantatzen. Guk iraun egiten genuen. Nik 50 urte daramatzat ezkondua, aurrez nobio gisa 11 urte egonda, eta zoriontsua naiz.



Juankar
Igeltseroa

Ez, ni bananduta nago. Maitasuna aldirako gauza bat da, datorkizun bezala doakizu. Elkarbizitzak edo ezagupenak desgastatu egiten du. Gizartean ez dago maitasunik, bakoitzak komeni zaiona egiten du. Arbasoek beste modu batean zeramaten baina ezin dugu gaur egungo egoera aitona-amonaren garaiarekin konparatu. Bizitzak buelta asko ematen ditu.



_GALDERA

Maiteminduen eguna dela-eta, maitasuna finkoa eta betirakoa dela uste duzu? Zergatik?

Proposatu zuk ere galdera egunkaria@aiaraldea.com helbidera idatzita



Irune
Zerbitzaria

Ez dakit, pertsonen arabera. Nik mutil laguna dut eta uste dut betirako izango dela, baina oso zaila da hori jakiten. Gizartean denerarik dago, Urduñan ikusia dugu hainbat bikote 50 urte elkarrekin egon eta banatu egin direla, baita espero ez genuen jendea elkarrekin egotea ere.

Gakoa maitatzean eta konfidantzan dago.



Coria
Tabernaria

Nik baietz uste dut, baina horretarako maitasunean sinistu behar da. Maiteminduta bazaude bai, bestela ez. Inork ezin du ziurtatu harreman bat betirako izango den ala ez. Ja ez da lehen bezalako bikote harremanik egoten. Gaur egun konfiantza, pazientzia eta zintzotasuna falta dira.



Angel
Jubilatua

Harremanaren arabera; nik bizitza osoa daramat. Sekretua zein den? elkarrekin egotea, normalean izatea. Nik semeak ditut eta aguantatzen dut.

Nire ustez heziketa kontua da. Elkar errespetatzeko hobeto hezi behar ditugu umeak. Jendartean maitasunean sinisten duen jendea eta ez duena dago, gauza denean bezala.

TWITTERen

#albisteizanda

@goroabel: Guerrero eta cuevasek irabazi dute partida 22-17. Azken partida hastear da **@aiaraldea**

@MikelberP Aipagarria oso Gotzon Martinek jubentzetan eman duen maila. Munduko Txapelketan 31. postua lortu du." aupa **@gotzonski**

@atxulaur_ke Zorrontzak 1 Atxulaur 2.Garaipen garrantzitsua eta askotxo landu behar izan duguna nahiz eta 13 jokalarirekin aurkeztu garen partidan. Aupa!

@112_SOSDeiak -ek informatu duenez sutea piztu da Zuhatzako baserri batean. Aiarako suhiltzaileek kontrolpean dute sua

@aiaraldea Hartzak Okondogoiaren? <http://ift.tt/1kr1VcE> pic.twitter.com/fmgOFrDqTy

@aiaraldea Aiaran, A-624 errepidean egondako istripuan 5 autok kalteak izan dituzte. 3 pertsona zauritu dira, emakume bat eta bi ume.

@iPtx Etengabe berritzen: **@aiaraldea** berritua ikusi berri dut, eta itzela dago: <http://www.aiaraldea.com/> biba zuek! **#berrikuntza** da bidea

TIRADA: 10.000 Ale. Lege gordailua: BI-1230-2013

ERREDAKZIO LANTALDEA: Aiaraldea Komunikazio Leihoko Erredakzio Saila

E-POSTA HELBIDEAK: egunkaria@aiaraldea.com / iragarkilaburrak@aiaraldea.com
publizitatea@aiaraldea.com / agenda@aiaraldea.com / agurrak@aiaraldea.com

OHARRA: Aiaraldea Egunkariak ez du bere gain hartzen zutabeetan, iritzi artikuluetan, gutunetan zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

Argitaratzailea: Aiaraldea Komunikazio Leihoa

Nerbio Kalea 1, 3. esk. Laudio, Araba. 01400 Tel: 94 656 85 54
Aiara Etorbidea 9, Amurrio, Araba, 01470. Tel: 945 06 66 84
Sakeleko Telefonoa (WhatsApp): 688 848 152

_gutunak

Torturaren aurkako nazioarteko eguna

Galder Bonilla.

Jada, 33 urte pasa dira 1981ko otsailaren 13an, polizia espainolek Joxe Arregi militante abertzaleari eragindako tortura basatien ondorioz erahil zutela. Kasik urte kopuru berdina Joxean Lasa eta Joxi Zabala militante eta errefuxiatu politikoak bahitu, hilabetez torturatu eta erahil zituztela. Gertakizun horiek inflexio puntua ezarri zuten Euskal Herriko historian, eta orduz geroztik gure herrian bizi izan dugun errealitate gordin hau salatzeke egun seinalatua da gaurkoa. Joxek, beste ehunka euskal herritarrek bezala, ezin izan zion errepresioaren aurpegirik bortitzenari ihes egin. Atxilotua, egun luzez inkomunikatua eta basatiki torturatua izan zen, bere kideei gutun batean idatzi bezala "Oso latza izan da!".

Gure herriak azalean ezagutu izan du urte luzeetan zehar tortura. Etsaiaren atzaparretan erori eta militante abertzaleoi informazio politikoa ateratzeko baliatua izan da, informazioa zeinarekin ondoren, kideen aurkako sarekada berriak, edota Espainiar zein Frantziar Estatuetakoko epaitegietan frogatzen gisa torturapean eskuratutako deklarazioak onartzen diren, horren ondotik kartzela zigorrak ezarriaz. Bada ordea beste errealitate bat, non tortura determinantea den: ihesa. Izan ere, atxi-

loketa eta honekin batera datorren inkomunikazio eta torturak ekiditeko asmoz hamaika euskal herritarrek euren bizitza atzean utzi eta ihesera jo behar izan dute azken hamarkadotan zehar.

Egun, beraz, oso presente dagoen errealitatea dugu torturarena. Ezker Abertzaleko militanteok gertutik ezagutu dugu azken urte luzeetan, eta oraindik ere epaiketa ezberdinen inputazioetarako oinarri edota ihesean ditugun burkideen ihesaldirako eta itzuliezintasunerako pisuzko arrazoia dugu. Gure herriak bizi duen gatazkaren errelatoa idazteko ordua dugula aipatu dugu sarri azken aldian, egiazkoa eta ez etsaiak saldu nahiko duen errelatoa. Zeregin horretan denok dugu zer esan, nondik egin ekarpena, Euskal Herrian gertatutakoaren errelato integrala idazteko ardura ere gu denona da. Eta gazteona ere bada, noski. Gauzak horrela, datorren Otsailaren 13an kalera atera eta ekimen ezberdinen birtatez tortura bai eta torturatzaileak eurak ere gogor salatu beharko ditugu. Izan duen erabilpen politikoa agerian utzi eta herri honek bizi izan duen eta egun ere gure artean dagoen errealitate beldur jendartean zabaldutako behar dugu, sekula ahaztua eta hortaz errepikatua izan ez dadin.

_herriz herri

Orozko

Udala eta Gazte Asanblada gaztetxea ez ixteko negoziazioan



Orain arte hainbat ekitaldi egin dira Gaztetxean Argazkia: Oihanemg

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Astelehenean bildu ziren Orozko udal-gobernuko eta Gazte Asanbladako kideak. Gaztetxearen itxiera agindua dela-eta, konponbide bat bilatzeko.

Gaztetxearen jardueraren erregulatzeko hitzarmen bat sinatzea proposatu zion Gazte Asanbladak Udalari. Baina proposamen hori alboratu eta beste bat egin zien Josu San Pedro alkateak asanbladako kideei: gaztetxearen inguruan bizi

diren auzokideekin hitz egitea. San Pedroren arabera, udalak auzokideekiko elkarbizitza errespetatzea eskatu dio behin eta berriro, bai eta lokalean txosna irekitzeko baime-na eskatu behar dutela ere, "Gazte Asanbladak, baina, behin eta berriro muzin egin die Udalaren eskakizun guztiei". Baina San Pedrok ez zuen zehaztu nola negoziatu behar zuten auzokideekin; konponbidearen erritmoak "auzokideek eta gaz-

teek markatu behar dituztelako". Gazte asanbladak zenbait konpromiso bete ez dituela eta auzokideak zaragatik hainbat aldiz kexatu direla argudiatuta eman zuen udal-gobernuak Gaztetxea ixteko agindua, iragan astean. Udal-gobernuaren dekretu bat jaso zuten asanbladako kideek, ixteko agindua baino aste bete lehenago. Dekretu horretan Gaztetxearentzat "aktibitate lizentzia" bat eskuratzea eskatzen zitzaion. Asanbladako kideen arabera, udalak bazekien lizentzia hori ezin zutela ordaindu, eta Gaztetxea ireki zenean txosna izateko baimena eskatu eta fidantza jarri zuten. Ixteko agindua jaso eta berehala hasi ziren mobilizazioak antolatzen: kontzentrazioa eta kazerolada egin dituzte, momentuz.

Ekintzarik ez

Desalojoa momentuz baztertua dagoen arren, gazte asanbladak salatu du hemendik aurrera Gaztetxean ekintzak egitea debekatu diela udalak. Alkateak ez du horren harira adierazpenik egingo. Hala ere, udalaren proposamena aztertuko dutela baieztatu dute asanbladako kideek.

Amurrio

"Auzobegiralea", udala eta herriaren arteko zubia

ERREDAKZIOA | Miren Ayesa Aranoa

Udalak auzobegiralearen figura sortu du herritarren eta administrazioaren arteko komunikazioa errazteko. Ekimena duela hilabete batzuk jarri zuten abian.

Helburua, auzo-bileretan herritarrek udal administrazioaren lanen eta zerbitzuen inguruan egiten dituzten proposamenak bideratzea da; auzobegiralea iritzi hauek jasotzen dituen erreferentziatzako pertsona bihurtuz.

Ana Izquierdo Udaleko parte hartzeko arduradunak dioenez, auzobegiraleak "politikarien papera osatzen du, auzo-batzarren ordezkariekin komunikazio zuzena ezarriz". Gainera, pertsona horrek auzo bati buruzko iritziak edo informazioa eman nahi duen edozein herritarrarentzako hurbila izan beharko du. Auzoetako batzarretako ordezkariekin lehenengo bilera izan ondoren udalak honelako pertsona bat behar zuela adostu zen, esan du Izquierdok.

2013ko azarotik Parte Hartze Herriarra eta Udal Gardentasunera-ko >erbitzu bat abian da udaletxe-ko lehenengo solairuan. Horregatik, udaleko parte hartzeko teknikariaren lanari auzobegiralearena batu zaio. Hortaz, Izquierdo izango da Amurrioko auzobegiralea.

Auzobegiralearen zereginak

Auzobegiralea udalaren eta herritarren arteko komunikazioa errazteko sortu den figura da, baina beste gauza asko ere egiten ditu. Hala, bere zereginen artean honako hauek daude: auzoetan egiten diren bilerak prestatu eta dinamizatzea; jardueren garapena ikusteko auzoetara ohiko bisitak egitea; auzoen ordezkariekin bilerak egitea eta behar izanez gero, jardueren garapenaren inguruko iritziak jasotzea; sei hileroko lanen egitearen inguruko txosten idaztea; eta orokorrean, Udalaren eta auzoen arteko ordezkaria izatea.

Arrankudiaga-Zollo

Bakiolako eta Atxetako errepideetan aldaketak egin dira

ERREDAKZIOA | Ixone Mendibil

Arrankudiagan, Bakiola eta Atxeta zeharkatzen duten errepideetan aldaketak egin dituzte.

Bakiolako errepideko lanak aurki bukatuko dira. Abenduan lur-jauzi handi bat gertatu zen eta errepidearen moztuta egon zen.

Ondorioz, egun batzuetan bidea itxi eta trafikoa autopistatik bideratu zuten. Horregatik, obrak abiatu zituen Bizkaiko Foru Aldundiak.

Lehenbizi lekua hormigoitu egin dute; eta orain arte alboan zeuden zuhaitzak bota eta sarea jartzen ibili dira. Obra hauek direla eta, puntako orduetan auto-ilara luzeak sortu

dira asteetan zehar. "Obrak Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatu ditu, errepidea aldundiarena delako", zehaztu du Itziar Duoandikoetxea Arrankudiaga-Zolloko alkateak.

Aldundiak udalari jakinarazi diotaren arabera, printzipioz obrak datozen egunetan bukatuko dira.

Atxetan, abiadura murrizketa

Ez da hori izan, ordea, Arrankudiaga-Zollo inguruetan egondako moldaketa bakarra. Atxetako errepidean ere aldaketak egin dira. Azken aldian hiru edo lau istripu izan dira bertan, "batzuk oso arrisku-

tsuak", zehaztu du alkateak. Horregatik, udalak Foru Aldundiari bide-seinaleak jartzeko eskaera egin zion. Hori dela eta, bide tarte horretan 30km/orduko abiaduran igarotzea agintzen duen bide-seinalea jarri dute.

Duoandikoetxearen ustez, ordea, hori ez da nahikoa: "Errepidea labainkorra dela abisatzen duten bide-seinaleak ere egon beharko litrateke". Izan ere, abiadura handian pasatzekotan talka egiteko arriskua dago. Azkeneko istripua irailan izan zen, auto batek pertsona bat harrapatu zuen.

Administrazioarako euskara plana berritu eta onartu du udalak

Datozen bost urteetarako euskara plana onartu dute. Administrazioaren barruan euskararen presentzia eta erabilera handitzen lagunduko duen plana da. Izan ere, Euskara-Planaren helburu nagusiak erabilera areagotzea eta normalizazioan eragitea dira. Modu horretan Euskara Planak erakundeak hainbat urteren buruan lortu nahi dituen ardatzak, helburuak, eremuak eta egitekoak biltzen ditu.

Udalan langileen %70ak egiaztatuta dauka postuari dagokion hizkuntza eskakizuna. Euskara teknikariaren esanetan "erronka nagusia egungo datuak eta portzentaia hobetzea izango da, idatzizko egoizpenean ahalegin berezia jarritz".

Departamentuko %80 euskalduna bada, "atal elebiduna" izeneko plana aurrera eramango da eta euskaldunen portzentaia txikiagoa den departamentuetan "mikroplana". Planak harrera txukuna izan duela adierazi dute teknikariak.

Batzar administratiboak herrigunearekin lotzeko autobusak

Amurrion hurbiltzeko autobus zerbitzua jarri du udalak. Ekimena batzar administratiboak dituzten herriek Amurriorekin komunikazioa izateko eskainiko dute. Bi linea zerbitzu izango dira. Lehenengo autobusak Baranbio, Lezama eta Larrinbe zeharkatuko ditu. Bigarrenak, berriz, Delika, Artomaña, Aloria, Lekamaña eta Saratxo.

Egunari dagokionez, ostiraletan bakarrik jarriko dutela adierazi du Josune Irabienek: "Merkatua dagoenez erosketak egiteko egun aproposa da". Zerbitzuaren baitan joan-etorria sartzen da. Alkatearen aburuz, zerbitzuaren balorazioa positiboa da: "Batzar Administrazioetan edadetuak bizi dira eta garraiorik ez dagoenez era honetan modu independente batean hurbildu ahal izango dira Amurrio erdigunera erosketak edo enkar-guak egitera". 9:30ean aterata eta 13:00etan itzultuko da autobusa. Herriarrentzat 14 plaza izango ditu.

_herriz herri

Laudio

Okondo

35 taberna pintxo lehiaketarako prest



Pintxo lehiaketa Argazkia: Josu Zaldibar

ERREDAKZIOA | Aitor Fernandez de Pinedo

Laudioko Udalak abian jarrita dauka martxoaren 14tik 16a bitarteko asteburuan jorratuko den VII. Pintxo Lehiaketa.

Hortaz, Tokiko Garapen Agentziak twitter eta facebook sare sozialetan lehiaketaren berri emateko sortu dituen profilei erreparatuta, 30 partaide baino gehiago izango dira gastronomia erakustaldian.

Aurtengoan, ostalariek luzatutako aholkuei jarraiki, pintxo kategoria bakarrean lehiatuko dira eta ostalari bakoitzak era librean osatuko du bere pintxo proposamena. Horrez gain, pintxo barra hoberena ere aukeratu da kategoria horretara aurkezten diren ostalarien artean. Hortaz, taberna edo jatetxeek bi kategorietan parte hartzeko au-

kera izango dute. Epaimahai teknikoa eta herritarra osatuko dira lehiaketa eabazteko.

Hiru sari banatuko dituzte batak zein besteak pintxoaren kategorian eta pintxo barra hoberena ere aukeratu da kategoria bakoitzean.

Lehiaketa ostiralean, martxoaren 14an, abiatuko da 19:00etan. Ordutik hasita hiru egunez pintxo lehiaketarako eskaintza izan beharko dute barretan lehiakideek, 12:00etatik 15:15era eta 19:00etatik aurrera larunbatean eta eguerdiko ordutegian igandean.

Lehiaketako pintxoak 1,30 eurotan izango dituzte salgai eta saritutako pintxoak apirilaren 21a bitartean izango dituzte barretan irabazleek.

Laudio BHI Comenius sarietan garaile

ERREDAKZIOA | Aimar Gutierrez

Laudio Institutuko Comenius programa EAEko zein Estatuko Comenius programa onena izendatu dute. Proiektua Europar Batasunak babestutako programa da. Helburua Europako herrialde desberdinetako ikastetxeekin harremanak sustatu eta elkarrekin lanketa bat burutzea da. Duela 12 urte hasi ziren Laudio Institutuan Comenius programarekin. Gai ezberdinak landu dituzte: herritartasuna, gutxitutako hizkuntzak edo energia, kasu.

Comenius programaren helburua ikasleak ingelesez komunikatzera bultzatu -ekintzak ingelesez egiten dira- eta atzerriko kulturak eta bizimoduak ezagutzea dela adierazi dute Laudioko Institutuan koordinatzaile lanak egiten dituzten ingeleseko bi irakasleek.

Azken proiektuan jorratutako gaia energia izan da. Hala, Laudioko ikasleek elektrizitate, paper zein janari gastuaren inguruan lanketa bat egin zuten ikastetxean.

Ondoren, ikasle talde txiki batak atzerriko herrialde batera bi-

daiatu zuen beste ikasleekin datuak alderatu eta arazoei irtenbideak bilatzeko asmoz. Proiektuan Suedia, Portugal, Reunion irla eta Hungariako ikastetxeekin jarri dira harremanetan. Herrialde bakoitzera 6 ikasle ordezkari joaten badi-ra ere, proiektuan zehar 100 ikasle bakoitzak gehiago hartu dute parte Laudioko Institutuan. Lan boluntarioa da eta DBHko ikasle guztiek har dezakete parte.

Eusko Jaurlaritzak 2013ko azaroan Laudioko Institutuan gartzen den Comenius programa EAEko programa onena izendatu zuen. Urtarrilean Estatuko Comenius programa onenaren saria jaso dute. Irakasleak pozik eta harro agertu dira eta Institutuarentzat oso positibotzat jo dute.

***info: audioa:**

Laudio BHI ikastetxeko irakasleei egindako elkarrizketa



Pertsona bat atxilotu dute txalet bat erretzeagatik

Okondon azkenaldian gertatu diren erasoen egilea izan daitekeela-koan, pertsona bat atxilotu zuten asteartean Ertzaintzak egindako operazioan. Alkateak hedabideek adierazi duten agerutatu du; Amurrión atxilotu zutela esan baitzuten. Era berean, urtarileko erasoaren harira soilik atxilotu dutela nabarmendu du.

Izan ere, urtarilaren 1ean hutsik zegoen Okondoko San Roman auzoan txalet bat zeharo erre zeneraso baten ondorioz.

Ertzaintzak sabotaia izan zela jakinarazi zuen, sua eragiteko gailu baten aztarnak topatu zituelako gertaeraren lekuan. Egun berdinean polizia 50 metro tara zegoen beste etxebizitza batean eztanda egin ez zuen sua eragiteko beste gailu bat topatu zuenaren berri zabaldu zuen. Gurpil batek, erregeiaz betetako botila batek eta metxa batek osatzen zuen gailua. Ikerketa oraindik zabalik dagoenez, alkateak uko egin dio adierazpen gehiago egiteari.

Azken urtetan eraso ezberdinak eman dira Okondon: pasa den udan lehergailu abotz zioten baserri bati eta 2012an erreplikagailu batek kalte arinak izan zituen eztanda baten ondorioz, besteak beste.

2009tik jaso dira horrelako ekintzak. Dena den, Sergio Tatok azpimarratu du urtarilean egindako sabotaia inguruko ikerketaren emaitza dela Okondoko atxilotaketa.

_lruditan



SOS Lamuza parkea plataformak deituta, 200 pertsona batu ziren Laudion egindako manifestazioan. Mobilizazioaren bidez, Arabako Foru Aldundiari Lamuza Parkearen Plan Berezia aplikatzeko eskatu dute. Argazkia: Luisan Garcia

Artziniega

Arespalditzako eguneko osasun zentroan plaza gehiago izango dituzte artziniegarrek, udalek akordioa sinatu baitute

ERREDAKZIOA | Unai Gotxi

Behar fisiko edo sozialak dituzten hirugarren adineko pertsonengana-ko eguneko arreta zerbitzua eskaintzeko akordioa sinatu dute Artziniegako eta Aiarako udalek. Izan ere, Arespalditzan kokatuta dagoen zentroan Artziniegako plazak beteta daude, Aiarako %80 soilik erabiltzen ari den bitartean. Elkarlanaren ondorioz, bertako agu-

reek, Artziniega edo Aiarako egunerako gunea erabiltzeko aukera izango dute, jatorrizko gunean lekurik ez eta Aiarakoan plaza bada-go. Izan ere, Artziniegako egoitzan, sartzeko aukera izateko itxaroten dauden adinez nagusiko pertsonak daude, erabiltzeko adostutako 10 plazak beteta daude. Horregatik eraman da aurrera negoziaketa,

aiararrek soberan dituzten plazak artziniegarrek bete ahal izan ditza-ten. Dena dela, aguraren batek beste herriko egunerako gunea erabiltzen badu, zerbitzua pertsonaren herriko udalak ordainduko du, Al-dundiak ematen duen diru laguntza kenduz. Erraztasuna izateko, udal-ete bakoitzak gastu horiek aurrei-kusiko ditu, urtero ordaintzeko.



_herriz herri

Aiaraldea

Laudiotik abiatuko da Saharara EAEko janari karabana

ERREDAKZIOA | Lucia Menoyo Martin

Sahararen aldeko euskal karabana Laudiotik aterako da aurten. Urtero bezala, Saharako errefuxiatuen alde lan egiten duten elkarrekin "Piztu Itxaropena" izeneko Karabana antolatu dute. Helburua Tindufeko kanpamenduetara elikagaiak eta premia-premiazko⁽¹⁾ bestelako produktuak eramatea da. Azaro aldean hasi eta otsailean bukatu ohi da kanpaina hau, karabana Tindufeko kanpamenduetara abiatzen denean. Ekimena, EAE mailakoa da. Hots, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan egin da.

Aurten hamargarren aldiz antolatu da ekimena eta Aiaraldeko SEADen (Saharako Errepublikari Arabiar Demokratikoa) Lagunen Elkarrekin eskerrak eman nahi dizkie kanpainen parte hartu duten eskualdeko herritar, talde eta udalei. Izan ere, guztira, 4.900 kilo jaso dira Aiaraldean: lekaleak, azukrea, pasta, arroza, hegaltzea, sardinak eta konpresak bildu dira eskualdeko supermerkatu eta ikastetxeetan. Iaz baino kopuru handiagoa jaso da eta elkarrekin oso pozik dago, beraz, herritar eta eragile desberdinek Sahara herriarekin adierazitako elkartasunarekin. Elikagai guztiak Aiaraldetik biltegi zentralera eramango dira orain, EAEn jaso diren gainontze koekin batera pilatzeko.

Aurten karabanak Aiaraldetik hasiko du kanpamenduetarako bidea, izan ere, Laudiotik abiatuko da larunbat honetan. Hemendik Ala-

canteko porturazuzendu⁽²⁾ eta hortik Aljeriara helduko da, elikagaiak Tindufeko errefuxiatuen kanpamenduetan banatzeko.

Karabanaren irteera ekitaldia

Karabanaren irteera ekitaldia Laudioko Baia eta Landaluzekaleen arteko gurutzetik Eroskiko biribilgunera⁽³⁾ doan tartean izango da.

Kanpaina antolatzen duten elkarrekin batera, Aiarako Kuadrilla, Udalak eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak izango dira. Euskal Herrian SEADek duen ordezkaria ere bertan egongo da.

Karabana abiatu ostean, Etawasol, Aiaraldean sortu berria den sahararren elkarrekin, jai bat antolatzeko asmoa du. Bide batez, otsailaren 27an den Saharako jai nazionala ospatuko dute horrela: haima jarriko dute, kontzertua egongo da eta baita tea dastatzeko eta henarekin gorputza margotzeko aukera ere.

Etawasol elkarrekin Aiaraldean dauden Saharako 170 lagun ingururentzat topagune izan nahi du. Arabierazko ikastaroa abiatu dute due la gutxi eta antzeko ekimen gehiago antolatzeko asmoa dute. Facebook kontua ere sortu dute informazioa elkarbanatzeko: www.facebook.com/etawasol.

Hiztegia: Premiazkoa⁽¹⁾, beharrezko / zuzendu⁽²⁾, bidali / Biribilgune⁽³⁾, errotonda.

Urtegi eta ur araztegietan obrak egingo ditu Patzuergoak



Maroñon egingo dituzte obrak, besteak beste Argazkia: Alfredo Ramirez

ERREDAKZIOA | Uxue Tome

Aiaraldeko Uren Partzuergoak, Kantauriko Urkidetzak, 1.846.000 euroko aurrekontua izango du aurten, pasa den urtean baino 400.000 euro gehiago. Hala jakinarazi zuten Izorian emandako prentsaurrekoan.

Udalen eta batzar administrazioen kudeaketaz arduratzeaz gain, 2014. urte honetan, besteak beste, barneko gestioaren ardura zerbitzua eskainiko dio Amurrioko Udalarai.

Berriarabotzat hartu dute eskualdeko administrazio publikoek. Izan ere, hornikuntza prezioak pasa den 2013. urtekoaren maila berdinean jarraituko du; 0,366 euro metro kubikoko partzuergoko kideentzat eta 0,561 euro Kantauriko Ur-

kidetzan parte hartzen ez duten erabiltzaileentzako.

Inbertsioak

Aurretik aipatutako 2014. urteko aurrekontutik 517.000 euro bideratuko dira inbertsioetarako. Martxan jarriko diren lanen artean Artziniega, Amurrio eta Laudioko ur-andelaren egokitzea izango da garrantzitsuenetakoa, 465.000 euroko kostua izango duena hiru urtetan (152.460 euro urte bakoitzeko). Lanak gauzatzeko epea, ordea, ez dute zehaztu; izan ere, horretarako lehendabizi proiektua zehaztu beharko baita. Obrak enpresaren bati esleitzeko lizitazioa egiteke dago. Besteak beste, argindarraren instalakuntza molda-

tuko dute, kontrolerako telemando bat jarri...

Maroño eta Artziniegako urtegiaren argindarra konponduko dute. Guztira, 169.198 euro bideratuko dira horretara. Lanak egiteko sei hilabeteko epea aurreikusi dute. Bestalde, telemando bana jarriko dute, 72.514 euroko inbertsioa suposatuko dutenak. Oraindik enpresarik ez dute kontratatatu horretarako, baina datozen bost hilabeteetan gauzatzea aurreikusi dute.

Madarian, aldiz, azpiegiturak hobetuko dituzte.

Horrez gain, Partzuergoak beste 289.387 euro erabiliko ditu Zerrabeko araztegiaren eraikitze, Zuhatz eta Arespalditzako isurketak tratatzeko. Eta beste 118.000 euro erabiliko ditu Artziniegako ur hodiak eraman behar diren lurra eskuratzerako, Angostinako urtegitik. Azken inbertsio horrek, Artziniegako San Antonio eta La Venta auzoen hornikuntzan hobekuntzak ekarriko ditu.

Laudion, aldiz, San Bartolome auzoko depositoak konponduko dituzte.

Horretaz gain, ur araztegiak konpontzeko proiektuaren erredatazioa gauzatzeko 16.335 euroko aurrekontua onartu dute. Lanak egiteaz Juan M. Igel Ruiz Ruiz de Azua arduratuko da, eta bost hilabete izango ditu Aiarako Kuadrillaren ur hornidura sistemaren inguruko informea egiteko.

Kutsadura elektromagnetikoa etetea eskatu dute 4 ikastetxek

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru Saez

Otsailaren 9an eztabaidatu zuten Eusko Legebiltzarrean kutsadura elektromagnetikoa muga-tzeko testua. Proposamen horren bitartez eta talde guztien babesarekin eskatu zitzaion Espainiar Gobernari kutsadura elektromagnetikoaren inguruko legea prestatu dezan. Gainera, EAEn kutsadura horrek duen eragin epidemiologikoa eta esposizio maila eta mapa egitearen beharra jakinaraziko zaio Eusko Jaurlaritzari.

Baina alderdi politikoak ez ezik, hainbat elkarrekin daude kezkatuta kutsadura mota hori dela eta.

Berez, gaia Legebiltzarrean jorratzen zen bitartean, herritar ugari elkartu ziren Gasteizen kutsadura elektromagnetikoaren aurka. Kontzentrazioan parte hartu zutenen artean Aiaraldeko lau ikastetxe eta guraso elkarrekin zeuden: Laudioko Latorro eskola, Amurrioko Lucas Rey, Urduñako herri ikastetxea eta Artziniegako Arteko Gure Ama.

Eskualdeko guraso eta hezitzaile horiek uste dute elektromagnetismoaren eraginabereziki arriskutsua dela umeengan eta horregatik esparru horretan arreta jartzeko eskatu dute.

Latorroko gurasoen bozeramaileek espero dute erakundeek gela-tan internet zerbitzua kable bidez ahalik eta lasterren eskaintzea. Eta, ondorioz, ikastetxeko wi-fi sistema itzaltzea, oraindik piztuta baitago.

Amurrioren, irakasleek gogoratu dute wifa ez ezik, antenak ere badaudela Lucas Rey ikastetxetik gertu. Artziniegako Arteko Gure Amako klustroa kutsadura elektromagnetikoaren aurka azaldu da. Wifaren aurkako dinamika ez dira berriak. Iazko apirilean, esaterako, Laudioko liburutegik kentzeko sinadura bilketa egin zuten.



Urterik urte aldatu egiten da karabana ateratzeko herria Argazkia: RASD elkarrekin

sozioekonomia



Itziar
Larrazabal
ELA

Argia

Legegintzako
Herri Ekimena

ELAK Legegintzako Herri Ekimen bat abiarazi du. Ekimenaren helburua sektore publikoko azpikontratetako enpleguari eustea da, eta gutxieneko baldintza batzuk bermatzea. Euskal Erkidego Autonomoan 30.000 sinadura bildu beharko dira ekimena aurrera ateratzeko.

Era honetan zerbitzuak azpikontratatzea erabakitzen duten administrazio publikoak gutxieneko maila laboral eta soziala errespetatzera behartzea nahi da.

Kontratetan lan egiten dutenen soldata eta lan baldintzak bi bidetatik eragin daitezke: lan hitzarmena eta baldintza orrietatik.

Nolako klausula sozialak eskatzen ditugu?

1. Langile azpikontratatuak lanaren iraupena ziurtatzea (subrogazioa), emakida beste enpresa bati esleitzuz gero. Horrela ez da enplegurik suntsituko.

2. Gutxieneko lan eta soldata baldintzak bermatzea. Zeintzuk? Indarrean dagoen sektore hitzarmenak edo, hitzarmena berritu ez den kasuetan, indarrean egon den azken hitzarmenarenak.

3. Zehapenak, aipaturiko baldintzak eta lan legeetan jasotako eskubideak betetzen ez dituzten enpresentzat.

Datozen asteetan bai lantegi eta bai kaleetan sinatzeko aukera izango duzu. Justizia sozialekoa eta eskubidea denez, emaitza LHE honi zure sostengua eskaera sinatuz.

Pentsionistek protestak egingo dituzte hilero berrordainketa sistema salatzeko



Laudioko anbulatorioan egindako protesta Argazkia: aiaraldea.com

ERREDAKZIOA | Aitor Martinez Ibarrola

Hilean behin irtengo dira mobilizatzena Laudioko Pentsionistak. Pasa den astean egin zuten lehenbiziko mobilizazioa, herriko anbulatorioaren aurrean. Kontzentrazioan 70 lagun inguru elkartu ziren.

Helburua euren egoera salatzeko da. Horretarako, gai desberdinak jorratuko dituzte hilabete bakoitzean.

Arabako Pentsionistak Lanean plataformaren barruan kokatzen

da Laudioko kolektiboa. Honek, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroako beste talde batzuekin Euskal Herriko Hilduen eta Pentsionisten Plataforma osatzen du.

Lehenengo ekimena haien aburuz gaizki planteatuta dagoen ordainketa partekatua farmazeutikoaren aurka egin dute.

Izan ere, "berrordainketa" izena izan beharko lukeela deritzote, aurretik zerga eta lanaren bidez or-

daindu dutelako. Horregatik, injustuztat dute. Besteak beste diru sarrera gutxien dituztenak zigortzen dituztelako; alegia, helduak eta pentsionistak. Gainera horiek izaten dira gaixotasun gehien pairatzen dituztenak.

Kritika handienak Eusko Jaurlaritzak jaso ditu, Madrildik egindako inposizioari emandako erantzunekiko desadostasuna dela eta. Izan ere, egoerari erantzuteko 18.000 euroko aurrekontua onartubada ere, pentsionisten plataformak nahikoa ez dela uste du, tinkatu gabea baita. Ondorioz, berritua ez izateko arriskua du.

Horretaz gain, helduek ordainketa partekatua bueltan jasotzeko eskaera egin behar izatea, askok gaitasun ezagatik ez egitea ekarriko duela adierazi dute.

Zentzu horretan, bide eraginkorragoa bilatu ez izana leporatzen diote Eusko Jaurlaritzari.

Horrekin lotuta, sendagaien ber ordainketa aurreratu behar izatea onartezina dela diote plataformatik. Pentsionisten arabera, dirua bueltatzeko eskakizuna egin duenak urte baten buruan jasoko du dagokion kopurua. Horrek pentsio baxuak dituztenengan eragin handia duela salatu dute. Hortaz, lan-

gabezia-prestazioa edota diru-sarreraren berme errenta jasotzen duten langabetuei ber ordainketa ez bueltatzearen salaketa aldarriberrinean kokatzen da.

Aipatutakoengatik, sistema honen kontra agertu dira. Osasungintza aberastasunaren banaketa bermatuko duen politika fiskal justu bidez finantzatzea defendatzen dute; publikoa, unibertsala, doakoa eta euskalduna. Horri indarra emateko 43.600 sinadura aurkeztu zituzten pasa den urteko azaroan.

Gauzak horrela, Eusko Jaurlaritzari ordainketa partekatua gaitzestea eta konpentsazio dekretua aldatzea eskatu diote, helduen eta pentsionisten berdintasuna bermatzen ez duelako, ez eta ordainketa sistemaren efektuei aurre egiten.

Bestalde, helduei eta pentsionistek nahiz osasungintza eta farmazeutika arloko langileei, osasunerako kaltegarria den neurri injustu horri aurre egiten jarraitzeko deia luzatu diete.

+info: bideoa:
Anbulatorioan
urrean egindako
mobilizazioa



Ekintzaile berriek bederatzi bulego izango dituzte eskura Laudioko Enpresen Hazitegian, bi urtez erabiltzeko

ERREDAKZIOA |

Enpresen hazitegia garatzeko obrak esleitu⁽¹⁾ ditu udalak. Iñigo Martinez Cerrillok azaldu duenez, ekintzaileak laguntzea dute helburu. Horretarako, jadanik aholkularitza zerbitzua eskaintzen dute Tokiko Garapen Agentzian. Ekimenaren bidez, enpresari berriek bi urtez proiektu propioa garatzeko lekua izango dute, "horiek baitira urterik zailenak". Babes teknikoaz gain aholkularitza zerbitzua eskainiko zaie interesa dutenei.

Proiektuak garatzeko Arza poligonoko udal eraikinean 158 m² egokituko dituzte. "Arzako gunea Laudioko produkzio gune izatea nahi dugu", erantsi du.

Hala, bederatzi bulego egokituko dituzte. Horietako bakoitzak 16-17 m² izango ditu. Horretaz gain, Garapen Agentzian egun dauden espazioak baliatu ahal izango dituzte bilerak, formakuntza saioak edo bestelako ekintzak garatzeko. Cerrilloren aburuz, ekintzaile berrien artean sinergiak sortzeko ere balioko du. Enpresen hazitegia, formakuntza saioak, enpre-



Tokiko Garapen Agentzian kokatuko dira bulegoak Argazkia: aiaraldea.com

sen behatokia... eskaintzearen bidez ekintzailea ideia batekin datorren momentutik proiektua garatzeko baliabideak eskaintzea nahi dugu". Azken formazio saioa autonomo eta enpresariaren egoera fiskalaz egin zuten. 33 pertsonen hartu zuten parte. Cerrilloren esanetan, ia 42 pertsona hurbildu ziren egitasmoaz galdezka. Horietatik 30 proiektu abiatu dira. Laster, jardunaldi berriak egingo dituztela aurreratu du Cerrillok. Epeei

dagokionez, ahalik eta lasterren martxan jartzea espero du Cerrillok. Bulego kopurua baino eskaera gehiago badago irizpide batzuk baliatuko dituzte: "Proiektuen nolatasuna, jendearen beharrak... aztertuko ditugu. Bulegoek errotaizango dute, bi urte eta gero bulegoen erabiltzaileak aldatu egiten direlako". Irizpideak zehaztutakoan aurkeztuko dituztela jakinarazi du.

Hiztegia: esleitu⁽¹⁾, kontratatu.

Ogerleko monetak erosleen kluba sortu du

Abenduan merkaturatu zuten eskualdeko "ogerleko" txanpona. Arabako Merkatarien Federazioak azaldu duenez, enpresen artean %40 hazi da ostalaritza eta merkataritza sustatzeko filosofiarekin bat egiten dutenen zerrenda.

Eduene Parrok prentsaurrean azaldu duenez, ogerlekoekin erosten dutenen kluba sortu dute. Ekimenaren baitan egitasmoarekin bat egin duten saltokiek kontsumitzaileei txartela oparitu diete.

Parroren arabera, egunetik egunera jende gehiago ari da bat egiten proiektuarekin. "Klubasortzearen ideia merkataritzaren eta zerbitzuen alde egiten dutenak sartzeari, protagonista bilakatzea", zehaztu du.

Ogerlekoari dagokionez, txartelen bidez erabileraren %60 ari dira egiten. Datozen asteetan ekimen berriak abiatuko dituzte herriarrek proiektuan doan parte hartu eta eskualdearen hazkuntza lortu asmoz. Momentuz, txanpona Amurrión, Laudion eta Artziniegan dago eskura.

_jendarte

Jabi Asurmendi

“Telegramekin mugikorretarako 100 aplikazio euskaratzeko erregaia eman digu jendeak”

JABI ASURMENDI Bitarlan enpresako kidea da. Otsailaren hasieran sareratu zuten Android mugikorretarako “Telegram” aplikazioa. Mezularitza zerbitzua eskaintzen duen software askea da. Dagoeneko 110.000 deskarga izan ditu.



Jabi Asurmendik euskaratu du Telegram aplikazioa, beste hiru lagunekin batera Argazkia: aiaraldea.com

ERREDAKZIOA I Izar Mendiguren Cosgaya

JABI ASURMENDI (1979, Arakaldo) Bitarlan enpresako kidea da. Oiraintsu, mezularitza zerbitzua eskaintzen duen Telegram aplikazio librea euskaratu dute.

Zer da telegram?

Telegram berehalako mezularitza zerbitzua da, whatsapp modukoa.

Whatsapp aplikazioarekiko zein ezberdintasun ditu?

Software askea da, hori da nire iritziz garrantzitsua. Jende askok hori doakotasunarekin harremanetan du, baina ez da hori soilik. Software libreak askatasuna ematen dizute. Guri, adibidez, kodigoa hartu eta euskaratzeko aukera eman digu. Are gehiago, euskaraz soilik sareratzeko parada eman digu. Hori whatsapp batekin ezin da egin. Nolabait esateko, tarta bat bezalakoa da. Tartaz gain programa libreak errezeta ematen dizute, eta errezeta zure gustura egokitzeko aukera. Gakoa ez da doakotasuna, askatasuna baizik. Horretaz gain, elkarrizketak zifratzeko aukera dauka. Horrek mezuak enkapsulatuta joatea esan nahi du, inork ezin dituela deszifratu. Era honetan maskara batekin bidaltzen dira mezuak saretik. Ezin du inork irakurri. Hala ere, ez da ezer %100 segurua.

Gainera, doakoa izango da betiko eta ez dauka publizitate-rik. Segurtasun aldetik ere zifra-

tzeaz gain autosuntsiketa denbora bat eskaintzen du mezuetan. Hau da, idazten duzun mezu hori zuk zehaztutako denbora tartean ezabatzen da. Orduan, pribatasun kontzeptua gehiago lantzen du. Taldeak sortzeko aukera ere badu, whatsapp baino parte hartzaile gehiago txertatu daitezke.

Fitxategiak bidaltzeko orduan ere, telegram-ek tamaina gehiago igortzeko aukera baimentzen du, giga bat arte.

Bi bertsio daude, androiderako eta iOS-rako. Guk, baina, euskarazko probako bertsioa androiderako bakarrik jarri dugu, baina etorkizunean iphonetarako prest egotea espero dugu. iOS-ekoa itxiagoa da, zailagoa, horregatik egin dugu Androiden.

Aplikazioa euskaratu egin duzue. Nondik atera zen ideia?

Telegram aplikazioa ezagutzen bitarlanen erabiltzen hasi ginen. Euskara eta software askea dira gure enpresako bi oinarriak. Gure artean komunikatzeko erabiltzen hasi ginen, eta ingelesez bakarrik zegoenez euskaratzea erabaki genuen. Bermeoko Gaueko enpresak euskaratzeko nahia azaldu zuen eta haiekin egin dugu.

Zelakoa izan da prozesua?

Iturburu kodea interneten dago, garatzaileek software askera-

“Gure artean erabiltzen hasi ginen, eta ingelesez bakarrik zegoenez euskaratzea erabaki genuen”

“Oso harrera ona izan du, harrituta gaude. Urtarrilaren 30ean sareratu genuen eta bi astetan 110.000 deskarga egon dira”

ko erabiltzen den biltegi batera igo zuten. Bertatik itzulpena egin joan gara, gainbegiratu egin dugu eta garatzaileei bertsio ofizialera gehitzeko jakinarazi. Horretaz gain, guk euskarazko telegram –a bakarrik duen aplikazioa sortu dugu, hari berri bat. Euskaratzea hiru-lau eguneko lana izan da, aste bateko kontua. Hiru edo lau pertsonaren artean egin dugu, testu asko ez dituen ez erraza izan da.

Non eta nola deskarga liteke?

Bitarlan.net webgunetik jaitsi liteke. Google Playn dagoen bertsioa ofiziala da eta horregatik dago ingelesez. Horregatik dago probako bertsio hau webgunean bakarrik eskuragarri, probako bertsioa delako.

Eraitza ez da beti lanaren neurrikoa izaten. Zuek zer espero duzue?

Oso harrera ona izan du, harrituta gaude. Urtarrilaren 30ean sareratu genuen euskaratuta zegoenaren albiste. Ostiralean probaren helbidea bidali genuen eta bi astetan 110.000 deskarga egon dira.

Euskarak teknologia berrietan zein toki du?

Ez dut uste txarto dagoe-nik. Twitterren, Umapen arabera 5.000 erabiltzaile aktibo daude. Hobeto egon daiteke, baina ez naiz ezkorra. Erabiltzaileak oso militantek dira, zerbait euskaraz dagoela ikusten badute edozer egin dute zabaldu eta erabiltzeko, telegramekin gertatu den bezala.

Euskarak dituen hiztunak izanda aplikazio gehiagotan izan beharko luke presentzia. Kasu honetan euskarak bere tokia hartu du aplikazio honetan, hiztun gehiago duten hizkuntzekin batera.

Eta zein izan beharko luke?

Euskaldun bezala edozer beti izango da gutxi. Institutuzioen webgune batzuk elebitan daude baina lehenetsitako hizkuntza ez da euskara.

Aurrera begira, baduzue beste erronkarik buruan?

Bai. Honek sekulako indarra eman digu. Telegramekin 100 aplikazio euskaratzeko erregaia eman digu jendeak. Dohainik egin dugu, euskaraz erabili nahi genuelako.



Koldo

Gilsanz

PSIKOTERAPETUA

_Hankamotz

Erantzukizuna euri azpian

Aurreko udazkenean, Nepalen trekking bat egiten ari gine-la, egundoko ekaitzak harrapatu gintuen.

Aurki ohartu ginen babes bat ezean guztiz blai amaituko genuela, beraz, etxetxo bat ikusi eta aterpe bila sartu ginen. “Excuse me. Posible?”. Barruan 7 urteko neskato bat. Harrituta, gertatzen zena ikustera irten zen. Gu hiru ginen, motxilatza, jaka, euritako eta guzti. Irribarre batekin erantzun eta aulki bat atera zigun. Gero bere aterkia hartu eta kanpoko iturrian harrikoa egiten hasi zen, airotasunez. Etxetik orduan negar batzuk entzun ziren eta neskatoo arrapaladan sartu zen. Bi urteko neba lasaitu eta atean eseri zuen, harrikoa amaitzen zuen bitartean. Tarteka irribarre botatzen zigun etxetik aho bete hortz begiratzen genuen lau begi pareoi. Amaitu ostean etxera sartu eta sehaskatik beste ahizpa txikiagoa hartu zuen. Kanpoan euria barra-barra ari zela, hiru neba-arrebee kin egon ginen, keinuz komunikatuz eta argazkiak egiten. Aterri zuenean bideari ekin genion pentsakor: Zelako graziaz zuzendu duen egoera! Hori da hori gaitasuna! Zer egingo luke gure kulturako haur batek?

Haurren eskubideak babestea ezinbestekoa da, baina norbanakoaren garapena sustatzeko, bete beharrak ezin ahaztu. Gure gizartean, orokorrean, gainbabestu egiten ditugu eta horrela egoera askori ez diote aurre egin behar izaten. Kontua da, erantzukizuna, hots, erantzuteko gaitasuna, egoera ezberdinei erantzunez garatzen dela. Ez al gara ari, orduan, zerbait ahazten?

Amianto, langileen hiltzaile eta ahots isila

Azken hamar urteetan 12 pertsona hil dira amiantoak sortutako minbiziaren ondorioz. Eskualdean, zazpi enpresatan agertu dira kasuak: Aceros de Llodio, Acenor eta Sinedorren bost, Tubos Reunidosen hiru, Guardian Llodion bi eta Tubacex eta Laudioko Udalean bana.

ERREDAKZIOA | Juanjo Basterra - Izar Mendiguren Cosgaya

Azken hamar urteetan hamabi pertsona hil dira amianto mineralak sortutako gaixotasunen ondorioz: Aceros de Llodio, Acenor edo Sidenor fabrikako bost langile ohi; Tubos Reunidosen hiru; Guardian Llodion bi eta Tubacex eta Laudioko Udaleko bana. Horiek, baina, kasuezagunedo aitortuak dira; Lan Ministerioak etengabe ezkutatzen ditu eta datuak. AEBE Amiantoaren Euskadiko Biktimen Elkarteak adierazi duenez, "izebergaren punta bakarrik ikusten ari gara".

Minbizia sortzen duen mineral honekin zerikusia duten kaltetuak asko dira. Horien artean daude eskualdeko Aceros de Llodio, Tubacex, Vidrala eta Villosa enpresak. Horiei, ordea, Arabako Ontzi Metalurgikoen enpresa gehitu beharko litzaioke, kasuak atera dira eta. Enpresa guzti horiek hildako langile ohien senideen eskariz epaiketak izan dituzte.

Jose Luis Navarrok eskualdeko 7-9 epaiketetan lekuko gisa deklaratu du. Hala ere, oso kasu gutxi salatzen direla dio, jendeak beldurra duelako. "Nik dakidala momentu honetan Laudion zazpi salaketa daude. Amurrioren ere badira kasuak. Tutuekin lan egiten zuen bat ezagutu nuen, amiantoak hil zuena".

Navarrok, epaiketetan amianto nola erabiltzen zen azaldu ohi du: "Epaiketak beharrezkoak dira biktimak konpentsatzeko". Erabakiak, ordea, ez dituztela epaileek hartzen pentsatzen du, legegileek baizik.

Eskualdean siderurgia asko dagoenez jende asko dagoela kaltetuta argi du. Orain arteko sententziek arrazoa eman diete: "Prozedura ondo eramaten denean sententziak aldekoak izaten dira, bai-

na asko tardatzen dute. Kaltetu asko epaiketa bukatu aurretik hiltzen dira. Azkena, duela hiru aste hil zen".

Sintomak

Sintomen artean ohikoenak arnasteko arazoak, ito larria... dira. "Amiantoarekin harremana izan duten lekuetako langileek osasun azterketak eskatu beharko lituzkete". Gaur egun, langileen errebi-sioak enpresek dituzten aseguru bidez egiten dira.

Amiantotik eratorritako minbizia dela konprobatzeko azterketa bereziak egiten dira. Horretarako Xizpiak, masen espektografiak... erabiltzen dira.

Salaketa jartzeko sindikatuen edo abokatuen bidea baliatzen ⁽¹⁾ dute gehienek. Zehazki, enpresei amiantoarekiko kontrol eta prebentzio eza leporatzen diete. Ondorioz, legea ez betetzea.

Salaketa jartzen denetik, ordea, denbora asko pasatzen dela adierazi du Navarrok: "Lehen 4-5 urte behar zituzten. Orain, prozesua azkartu egin da, baina oso litekeena da denbora horretan kaltetua hiltzea". Kasu horietan batzuek epaiketa uzten dute, eta beste batzuek jarraitu. Aldatu egiten dena indem nizazioaren forma edo exijentzia da, langilearen pentsioa alargunarena edo familiarena izatera pasatzen delarik".

Mundu osoan 100.000 heriotza

Mundu osoan 100.000 heriotzek dute zerikusia amiantoarekin, lanarekin lotutako minbiziakasuaren %54.

Munduko Osasunaren Erakundeak (OMS) datozen 30 urteetan 500.000 heriotza aurreikusi ditu

Datozen 30 urteetan Euskal Herrian amiantoarekin lotutako 10.000 heriotza aurreikusten ditu Munduko Osasunaren Erakundeak. Orain arteko epaiketek langileei arrazoa eman diete.

Europar, 10.000 Euskal Herrian eta 55.000 Espainian. 2013an Hego Euskal Herrian 14 langile ohi hil ziren bizitza laboralean zehar amiantoaren fibrak arnasteagatik.

Kopurua handia bezain txikia izan liteke, mediku adituek detektatzeko zailtasunak dituztelako. Azaldu dutenez, "amianto osotasunean minbiziaren sortzaileetako bat da".

AEBE salatu du 2008tik 2013 arte azken bost urteetan 120 hildako utzi dituela amiantoak Hego Euskal Herrian. Gaineratu dutenez, amiantoarekin kontaktua izan edo izaten duten langileek mediku azterketa bereziak jaso beharko lituzkete.

Osalanen kalkuluen arabera, 5.600 pertsona inguru daude egoera horretan, eta horietatik %20k zuzeneko kontaktua izan du. Horretaz gain, azpimarratzekoa da amiantoarekin aritu diren langileen %25 oraindik aktiboa dela. Errealitateari begiratuta gaur egun hartzen diren neurriak ez direla aski bistan da; ezin dira amiantoaren ondorioak aurreikusi ez dagoelako osasun behaketaren ⁽²⁾ kontroleraginkorrik.

Adituen arabera, amianto gorputzean 10-40 urte artean egon daiteke. Alabaina, langileak jutilatu edo adinean gora doazenean azaldu ohi da. Hori azterketak egiteko zailtasun erantsi bat da. Jukak Takala Laneko Segurtasun eta Osasun Agentziako zuzendari oiharen esanetan, amiantoaren ondoriozko hildakoak ez dira 40 urtetan desagertuko. Antzerako hausnarketak ⁽³⁾ egin zuen Silicosisaren Institutuko neumologoen buruak. Froga moduan, aurreko mendean inportatutako amianto kopuruak eragina izango duela ekarri zuen

gogora. Izan ere, 80. hamarkadan amiantoaren bi miloi tona baino gehiago sartu ziren Espainiara. Jose Luis Navarrok esanetan, 80. hamarkadatik aurrera amianto "erakontziente eta sistematiko batean" ezabatzen hasi ziren. Izan ere, osasunean sortzen zituen kalteekiko kontzientzia hedatu ⁽⁴⁾ zen.

XX. mende hasieran atera ziren azalera amiantoak osasunean sortzen dituen eragin negatiboak. Harrigarria suerta litekeen arren, 40. hamarkadatik prebentzio neurriak eta babestea exijitzen da lan eremuetan. Enpresari batzuek, baina, ez dute kasurik egin. Carlos Piñeiro mediku galiziarak Agavida elkartearekin ere egiten du lan. Piñeiroren aburuz, amiantoaren neurri gabeko erabilera enpresarien anbigatortasunetik eman da.

Itzala, eskualderaino

Jose Luis Navarrok iritziak garrantzi handia ematen du osasuna eta arriskuak gehitu beharko litzaizkioke: "Adibide bat jarriko dut: Altxairu urtuaren ordez sailhesterko amiantoaren ordeaz azido kromikoak erabiltzen ziren, dikromatoaren deribatuak. Dikromatoak amiantoak baino minbizi gehiago sortzen du". Aceros de Llodio enpresan 1,5-2 urte artean erabili zutela gogoan du, arazoak jabetu ziren arte: "Produktuek kolore gorria zutela ohartu ginen. Behin bariante batzuk ekarri zitigutenean, berdeak eta hori biziak. Esperientziagatik azido kromikotik eratorriak zirela ohartu ginen, osasunerako oso txarrak zirela. Aztertu eta analisiak ikustean erabilera baztertu genuen".

Agapito Valleren arabera, amiantoarekin bi arazo daude: era-



Arnasteko arazoak, itolarria, minbizia... dira amiantoaren ondorioak.



rekin lan egitearen ondorioetako batzuk. Argazkia: Ferrolezama.es

bili den lekuen identifikazio eza eta gaixotasun profesionalaren aitor-tza.

Eskualdean kasu asko daudela dio. "Arazoa da epaiketetara gaixotasun laborala aitortzeko helburu soilarekin bazoaz -indemnizazioaren orde- kasuak ez direla irekitzen. Gizarte Segurantzaren orduan ezin izaten da ezer egin". Plaka pleuralak oso ohikoak direla dio. Horregatik, sindikatuak gaixotasun profesionalaren aitortza eta beharrezko neurriak hartzea eskatzen dute.

Tubos Reunidosen, Tubacexen, Guardian Llodion... hainbat kasuaztertutako dira. Hori etako bi ari da eramatzen Valle: "Jubilatuak dira, ezintasuna aitortu diete, plaka pleurala frogatu dute... baina ez zaie gaixotasun laborala aitortzen. Laudioako Udalean eraikinen mantenuarekin lotutako kasuak ere azaldu dira".

Epaiei begira, Guardian Llodion eta Tubos Reunidosen ebazpenak langileen alde egin du: "Enpresa eta mutua arduradun egin dituzten sententziak". Amurrioko Tubos Reunidos enpresak uztailetik bere prestazioen %30eko errekaru bat egiten dio minbiziaz gaixo dagoen langile ohi bati; Gasteizko epaitegiaren aginduz. Langileak biriketako minbizia zuen, eta Osalanen aburuz, minbiziaren zergatia amianto da. Izan ere, kaltetuak 1977az geroztik 20 urte inguru eman zituen amiantoaren eragina modu zuzen batean jasotzen. Aurrera begira, egoera aldatzeko lanean jarraituko dutela adierazi dute bai sindikatuak eta baita langileek ere.

Hiztegia: baliatu⁽¹⁾, erabili / behaketa⁽²⁾, azterketa / hausnarketa⁽³⁾, erreflexioa / hedatu⁽⁴⁾, zabaldu.

Amiantoak sortutako kalteak 10-40 urtera atera litezke. Sindikatuen aburuz, hiru gabezia nagusi daude: prebentzio neurri eza, lekuen identifikazioa eta gaixotasun profesionalaren aitortza.

"Enpresek ez dute nahikoa segurtasun neurri hartu"

JOSE LUIS NAVARRO (Laudio, 1943) Aceros de Llodio lantegiko fabrikazio arduraduna izan da urte askoan. Hainbat epaiketetan lekuko izan da.



Jose Luis Navarro. Argazkia: aiaraaldea.com

JOSE LUIS NAVARROk gertutik ezagutzen ditu amiantoaren kalteak, arazoak eta ondorioak.

Zure bizitzak lotura handia izan du amiantoarekin. Nolatan?

Aceros de Llodio fabrikazio arduraduna izan naiz urte askotan. 1958tik 1991ra bertan egin nuen lan. 70.hamarkadan asbestoarekin -amiantoaren minerala- genuen harremana egunero 60-100 kilotakoa zen. Era askotan erabiltzen zen, baina bereziki sutik babesteko baliatzen zen. Paradoxikoa da, babes pertsonalera-ko erabiltzen zelako eskularruetan, petoetan, defentsarako pantailetan...

Zergatik da txarra?

Amiantoaren fibrak arnasketak bidez sartzen dira gorputzera. Arnasbidearen bidez, biriketara doaz. Edo, odol aparatua, minbizia sortuz. Asbestoak -amiantoaren mineralak- bost edo sei forma kristalino ditu. Hori etako bat ez da minbizi sortzailea. Besteek, industrian 800 gradu baino gehiagotan erabiliz gero ez dute kalterik sortzen. Siderurgietan tenperatura handiekin lan egiten den arren -1500 gradu baino gehiago- prestaketa lantetan 300-600 gradutan erabiltzen da. Horrek, fibrak aireatzea dakar, baina ez dira deskonposatzen. Horregatik, hautsa giroan edo airean geratzea dakar, horregatik handia izaten da arnasteko arriskua.

Langileari edo familiari zertan eragiten dio?

Laneko arropa etxera garbitzeko eramatean posiblea da fami-

"Amiantoaren fibrak arnasketa bidez sartzen dira gorputzera. Biriketatik odolera doaz, minbizia sortuz"

"70.hamarkadan amiantoarekin genuen harremana egunero 60-100 kilotakoa zen"

"Amiantoak kaltetutako jende asko dago baina ez dute salaketa jarri nahi. Jendeak beldurra dio"

lia ere kaltetzea. Hori ez da emakumeekiko arrisku edo kalte bakarra. Etxeetan erabiltzen ziren plantxa elektriko batzuek ere mangoa eta txaparen artean amianto plaka batzuk izaten zituzten.

Azken urte hauetan egoera aldatu da?

Enpresek ez dute nahikoa segurtasun neurri hartu. Enpresak, aseguru konpainiak, Gizarte Segurantzaren... dira egoera honen erantzuleak, langileek material arriskutsu batzuekin lan egiten duten prozesuaren parte direlako.

Amiantoak orain askoz gutxiago erabiltzen da, eta kontu handiarekin. Alabaina, beste elementu arriskutsu batzuekiko jarrera axolagabea dago: geroz eta elementu ezezagun berri eta artifizial gehiago erabiltzen dira fabriketan, aurrera begira dituzten ondorioak aztertu gabe. Dena ez dago gaizki: babes neurriak eta osasun azterketak ere hobeak dira. Hurrengo belaunaldiak zailago izango dute.

Legeak zer dio?

Legeak ez direla erabili behar dio, baina ez da betetzen. Beru-naren minioa toxikoa dela gauza jakina da duela mende batetik. 2005ean, oraindik, azpiegitura metalikoen babes neurrien araudiak babesteko minio kapen erabilerari exijitzen zuten.

Enpresek, oro har, zelako jarre-ra dute?

Orokorrean, amiantoaren erabilera ukatu egiten dute. Bada okerragorik, halere: amiantoaren kalteak frogatzen direnean legearen zirrikituak baliatu egiten dituzte zor duten diruaren ordainketa atzeratzeko. Amiantoarena erantzukizun arazoa da, erabiltzaile eta erosle bakoitzak zer eta nola erabiltzen duen aztertu beharko lukeelako.

Sindikatuak zer eskatzen dute?

Nik ondo CCOOren irizpideak bakarrik ezagutzen ditut. Gaixotasun laboral gisa aitortzen saiatzen gara. Eta gero, langile edo familiari dagozkion konpentsazioak ematen: pentsioaren handitzea, indemnizazioak... Hori, baina, ez da aski. Amiantoak luzera ateratzen da, eta frogatzen denarako enpresak edo erantzuleak posible da ez existitzea. Estatutuetan Alstom Power eta beste puntako enpresa batzuk itxi egin ziren. Erantzukizuna kolektiboa da.

Jendartearen arazoarekiko konzientiaziorik ba al da?

Ez nahikoa. Laudion amiantoak kaltetutako jende asko dago baina ez dute salaketa jarri nahi. Jendeak beldurra dio. Herritarrei exijenteagoak izateko eskatuko nieke; enpresa eta instituzioek osasun laborala bermatu behar dute.

_kultura

Sagardoa egiteko Arabako lehen dolarea aurkitu dute Laudion



Santa Luzia ezizenez ezagunagoa den Ermu inguruan egin dute aurkikuntza Argazkia: Gartzzen Garaio

ERREDAKZIOA I

Laudioko Goikoetxea baserrian XVI edo XVII. mendekoa den sagardoa egiteko lehen dolarea induskatu dute Araban. Aurkikuntza abenduan egin zuten. Urtarrilean laborategi lanak egiten ibili dira.

Dolarea Santa Luzia izenez ezagunagoa den Ermu inguruetan kokatuta dago.

Sergio Escribano arkeologoa ari da aurkikuntza ikertzen. Kontatu duenez, ezustean harrapatu zuen berriak: "Larunbat arratsaldean zen eta telefono dei bat jaso nuen, Florenena, baserrian lanean zegoela zerbait bitxia agertu zela zioen, eta ea hurrengo egunean begiratzera pasa nintekeen". Erosketak egiten zebilen une horretan, baina erro-matarrek eta bestelako burutapek bete zuten bere adimena. Hala, igande goizean bertaratu zen Goikoetxea baserrira. Han zituen zain Usiatarrak. Lurzoruan ñabarduraz beteriko zulo nabarmen bat ikusi zuen. Horren ulermenak, ordea, esku hartze arkeologiko bat eskatzen zuten. Horregatik, museoradeitu eta baimena eskatu zuten, Arabako Foru Aldundiko Arkeologia sailko teknikariek prozedura hasi zezaten. "Harriak jota gelditu nintzen hauen ahotik agian aldundiak finantzatu zezakeela entzun nuen", dio. Indusketak hasi arte, ordea, zenbait aste igaro ziren, Escribanoren esanetan, "ziurgabetasunez beteak".


Hurrengo egunetan hasi zen Goikoetxea baserriko ataria zulatzen. Ez donola, noski. Arkeologian hainbat irizpide baitaude: "Geruzaz geruza lehenik eta behin berriena, gero honen azpian dagoena, eta horrela geruza geologikora heldu arte".

Baserriko kapabakoitzak endu ahal, marrazki eta argazki bidez dokumentatu zuen. Eta ondoren, konposaketa aztertu, beste geruzekiko harremana zehazteko. "Horrela erabiltzen dugu estratigrafia arkeologian, lurzoru zein eraikin zati bakoitza ikertu eta isolatzeko. Atal bakoitza askatu eta lekuko material horien osotasuna nola eratu den ulertzeko balio du".

Ikerketaren emaitzak

Ikerketen emaitzez galdetuta, ez dituztela ondorio ugari ateratu aitorzende: "Lortutakoak, aldiz, tinkoak eta garrantzitsuak direla defendatugenezake; bai bertako historia berregiteko eta Araban zein Euskal Herrian iraganean emandako prozesu ezberdinak hobeto ezagutu eta zehazten laguntzeko". Oraindik azterketa egiten daude, baina hiru aldi nagusi bereiztu dituztela nabarmendu du: "Zaharretik berrira: egungo baserria baino zaharragoa den beste baserribat, egungo baserriaren eraikitzea eta horren barne egituraren berrantolaketa".

Laudioko Goikoetxea baserrian XVI edo XVII. mendekoa izan daitekeen dolare bat aurkitu dute. Araban indusketa egin den lehenengoa da.



Dolarearen berregite hipotetikoa Irudia: S. Escribano, A. Iglesias eta A. Rodríguez

Escribanoren esanetan aurretiko baserriko aztarna gutxi dituzten arren, sendoak dira. Alde batetik, atariko harrizko zoruan barneratu zuten horma ilara bat antzeman dute, "tipologikoki lehen baserriekin bat datorrena, harlandu gotikoa baitu". Kokapen aldetik, egungo ataria dagoen espazioa horma batek ixten zuela adierazten duela pentsatzen du.

Sagardoarekiko zaletasuna

Aurkikuntzarik garrantzitsuenak dolare baten ardatza eusteko egin zuten estruktura da. Hots, sagardoa ekoizteko erabiltzen zen egituraren zatibat. "Azpiegitura hori, harikaitzean zulo bat eginez hasi ziren eraikitzen. Honen barruan ardatza bertikalean kokatu zuten, eta mugimenduari eusteko horizontalean lau habe txikiago". Horiek bi maila ezberdinetan jarrita daude, binaka eta harriak jarritik sendotzeko: "Beraien ezaugarriak esker, hormak eta egiturak XVI. eta XVII. mende artean kokatu daitezke".

Gaur egun ikusten den baserria XVII. mendean eraiki zuten, "behintzat honen harrizko egitura". Horren testigantza jaso dute indusketan, eta berreraikitze horrekin erlazionatu dute atarian zegoen harrizko zorua. "Hau eraiki eta zenbait denboraren ondoren, XIX. mende amaieran eta XX. lehen erdialdean barne egituraketa guztia berrantolatatu zuten".

Sergio Escribanoren ustez, argi dago Arabako Aldundiak bere osotasunean ordaindu duen indusketa honi esker Isusi auzoaren biztanle eta paisaiaren inguruan zer edo zer gehiago dakigula. "Gutxienez, XV eta XVIII. mendean sagasti gehiago eta dolare baserri bat zegoela gogoratu ahal izan dugu", zehaztu du. Baita mende haletako audioarrek sagardoarekiko zuten zaletasuna ere. Hori gutxi balitz, Aro Modernoko baserriaren ezaugarri nagusiak zein egungo baserriarekiko duen erlazioa zehaztu dute.

Beretzat, ordea, beste esanahi bat du: "Egitasmo aldetik aipatu dugun lanekiko onura zuzenik ez duen arren, Ermu edo Santa Luzia izenez ezagutzen den ingurune on-dare kulturalaren gaineko ekintzei eman zaie hasiera". Izan ere, iaz Euskal Herriko Unibertsitateak eta udalak ezagutza historikoan sakontzeko elkarlana abiatu baitzuten. "Hau hasiera baino ez da".

*info: bideoa:

XVI edo XVII. mendekoa izan daitekeen dolarearen aurkikuntzaren erreportajea



Inma

Roiz

IDAZLEA

_Kamerinoa

Parez pare

Emakumeei buruz hitz egiteko eskatu dit Me-nagaraiko emakumeen taldeak eta nire eleberriko pertsonaien bitartez egin dut hori. Bizi-baldintza ezin gogoragoak jasan behar izan zituzten emakume haien indarra ekarri nahi dut gogora. Baserrien arteko trukerako txanpon ziren, baina foruek aitortzen zizkieten eskubideak ezagutu eta baloratzen zituzten. Ezkontzea eta umeak edukitzea, horra hor euren eginkizuna. Izan ere, ezkongabe geratzeak zera esan nahi zuen: gainerako senideentzako lan egin behar izatea. Hori bai, jaiotzez Bizkaiko kapare ("hidalgo") zirela jabetuta, ez ziren beldurtzen ezkontzeko proposamen faltsuen aurrean. Nobela prestatzen behin baino gehiagotan aurkitu nituen emakumeek gizonen aurka abiarazitako auzien frogak. Gizon horiek, hain zuzen, ez zuten emakumeen ohorea urratu, baizik eta zerbait garrantzitsua: euren etorkizuna. Emakumeek ez zuten bizitza-publikoa delakoan parte hartzen, eta are gutxiago ekonomiaren eta politikaren esparruetan. Hala eta guztiz ere, esan bezala, legeak aitortzen zizkien eskubideak zein ziren bazekiten, eta defendatu egiten zituzten. Gizonak bezain bizkaitarrak eta nobleak ziren, eta horretaz jabetuta egoteak bide eman zien gizonetako ugazaba zein basailuei perez pare begiratzeko. Nobela idazten ari nintzela, beraz, jakin nuen hemengo neskameek bizi izan zuten errealitateak ez zuela zerikusirik Urduñako mende-teaz eta Balmasedaz hara indiko neskameen bizi-baldintzekin. Gure lurraldeko emakumeak ez ziren sumisoak, ez zioten inori men egiten. Bada zerbait.

_kultura

_kultur leihoa

 WEB-GUNEAN KULTUR PROPOSAMEN GEHIAGO
IRAKURGAI ETA ENTZUNGAI www.aiaraldea.com/proposamenak



ZINEMA
GAZZA ZATI BAT
Lander Arteaga.

"Herri txiki batetik abiatutako bigazteek egindako bidai batetik, Aieteko adierazpenera. Idiazabal-etik, Eskoziara. Pertsona baten ideibatetik, herri baten itxaropen-nera..."



MUSIKA
GREGORY PORTER
Mario Corral "Peru".

"Azken aldi honetan munduko prentsa musikala bere menpe jarri du. Hedabideen azal askotan agertu da. Gurean ere Enlacefunk aldikariaren azalean azaltzen da. Grammy bat..."



BIDEOA: Lamuza parkeko ondare historikoa. Audioko parkeko ondarea kolokan dagoela-eta, bideoerreportajea ikusgai webgunean



Aldizkaria da elkartearen ekimen ezagunenetako bat Argazkia: aiaraldea.com

Aztarna etnografia elkarteak jasoko du urrezko "Guk saria"

ERREDAKZIOA  Miren Ayesa Aranoa

Apymcak, Amurrio Bidean-ek eta Udalak osatutako batzordeak Aztarna Etnografia Elkarteari aurtengo Urrezko Guk saria ematea erabaki du. Saria martxoaren 29an emango diete Amurrio Antzokian 20:00etan herritarrei irekita dagoen gala batean.

"Gure herriko bizimoduak, tradizioen erak eta ohiturak, eta es-

kualdeko kultura eta ondarea sustatzen, zabaltzen eta ikertzen, kulturaren aldeko lanak egiteagatik" aukeratu dute, batzordearen esanetan.

Horrez gainera, sari-emaleek Aztarnak kaleratutako aldizkariak, "Amurrioren historia 1900-1050" liburua, 3.000 piezaz osaturiko Errefo-rean dagoen bilduma eta museo

birtuala nabarmendu nahi izan dituzte aipamen honekin.

Aztarna Elkartea Etnografikoa 1998 urtean sortu zen herriaren bizimodua eta tradizioaren usadio eta ohiturak ikertzeko, eskualdeko historia eta ondare kulturala sustatzeko eta hedatzeko, edota egiten diren ikerketak argitaratzeko, besteak beste.

Aztarnakideak, pozik

Luiso Lopez Aztarnako kideak adierazi duenez oso pozik daude berriarekin: "Abade batek hasi zuen bidea. Konturatu gabe urtemuga ospatzen ari gara".

Baserrietako tresnak pilatzen hasi ziren: fosilak, teilak... Horiek guztiak Reforrekoko biltegian dituzte. "Gero idazlanak egiten hasi ginen", Aztarna aldizkaria izaten bukatuko zuena. Aurtun, gainera, 20 urte beteko ditu aldizkariak. Guztira, 44 ale atera dituzte orain arte.

Horretaz gain, museo etnografikoa daukate. Bertan, besteak beste, harrizko fosil garrantzitsu bat dute. Baita erromatarren garaiko tresnak ere. Horien artean daude garia egiteko errota bat eta zeramikazko pieza batzuk; "Felix Murgak aurkitu zituen".

Guk saria jasotzeaz gain, aurtengo jaietako pregoilariak izango dira.

+info: audioa:

Luiso Lopez Aztarnako kideari Harian magazinean egindako elkarrizketa



Diego Martin musika zuzendariak Madril eta Berlin zapaldu ditu

Diego Martin Amurrioko musikari aditua "Broke Back Mountain" ikuskizuneko zuzendari laguntzaile gisa aritu da Madrilgo Teatro Realean.

34 urteko aiaraldearrak Berlineko operan egingo du hurrengo debuta, Alemaniako musikari oso esanguratsuak diren "Die Verwandlung" eta "Die Blinden", Paul-Heinz Dittrich artistarenek, lanak taularatzuz.

Antonio Oyarzabal pianojolea hautatu du Vienako orkestrak

Antonio Oyarzabal Airigita Audioko pianjole gaztea hautatu dute Vienako Gustav Mahler Jugendorchester orkestran aritzeko. Europako gazteen orkestrarik ezagunenean parte hartuko du, beraz. Urtero, 2.000 lagunek egiten dute hautaketa proba.

Aiaraldeko artistak 24 urte baino ez ditu. Egun, Londreseko Young Musicians Symphony Orchestra taldean ere jotzen du.

TAUPADAZ TAUPADA: Musika librearen inguru

Entzun Aiaraldea Irratian musika librearen inguruko TAUPADAZ TAUPADA irratsaioa



EGOITZ
Bernaola
HISTORIAZALEA

_Lurpetik

Kontzientzia

Denbora konplexuak bizitzen ari gara alderdi guztietan. Baina denbora hauetan da noiz, behar zein asebetetzeagatik, edota barnetik ateratzen diren bultzadengatik  erne mantentzen gaituzten horiek , ideiarik interesgarrienak sortzen ditugun. Halaber, letargietatik eta idortasun denboraldietatik esnatzen gara bultzada horrei esker. Gure eskualdea eta bere jendea ez dago honen guztia-aren aske.

Guk bezala, kulturak ere sufritzen du, baita ahuldu ere. Mehatxatuta, askotan heriotzaren itzalaren oinazea pairatzen du. Antza denez, Laudion (urtetan zehar letargia antzu horietako batetan murgildurik egon dena) zerbait aldatzen ari da. Hainbat izan dira egoera honekin bukatzea helburu izan duten proiektuak, hots, egoeran sakontzea eta sentikortasun kultural eta bere beharrei esparru eta euskarriez hornitzea. Proiektu horien inguruan nolabait aritu garenok nola egoera honen aurrean buruak esnatzen ari diren ilusioaz ikusten ari gara.

Laudioko ondare historiko-artistiko eta kulturalaren egoera tamalgarriaren inguruan irekitako eztabaida poz eta itxaropenarekin baino ezin da hartu. Gurea dena hil ez dadila, hori da eztabaida honen xedea; era berean, izan ginena ulertzeko, gaur garena interpretatzeko, eta etorkizunean izan nahi garenari zuzentzeko. Egia esan, ez dugu honetan zorte handirik izan, baina gauzak aldatzeko lehenengo pausoa, zalantzarik gabe, balioz dohatu eta kontzientzia-hartzean datza. Hemendik, zuei guztiei, mila esker. Ikertzeko asko dago, eta ez da beranduegi.



Lizentziak
Ibilgailuak
Ziurtagiriak
Dirulaguntzak
Garraioak

Ehiza - Arrantza - Armak
Matrikulazioak - Transferentziak - Bajak
Jaiotzeagatikoak - Azken nahia
Autoenplegua - Lan-agiriak
Txartelak - Bisatuak

ARRATE
GESTORIA

Aseguruak - Aurrezki-planak - Finantza-produktuak
Aholkularitza laborala, fiskala eta kontablea

Iturralde 2, 01470 AMURRIO
945 89 02 06

ZERBITZUA EUSKARAZ

kirola

TRIATLOIA

“Kirolak bizi-ilusioa eman dit. Handiagoa da kirolak emandakoa kendutakoa baino”

IBONE SANCHEZ GARMENDIA (Laudio, 1989) triatloian aritzen da. lazko denboraldian 17 podium zapaldu zituen. Egun, krossetan, duatloietan eta triatloietan aritzen da.

ERREDAKZIOA | Aimar Gutierrez

Kirol askotan aritzen zara. Zein duzu gogokoena?

Triatloia, momentu honetan “nire helburu kirola” bezala ikusten dudana da, hau da, horretara bideratzen ditut eguneroko entrenamendu saioak, horretan baititut helburu nagusienak.

Akuatloia, asko estimatzen dudana proba da, proba berezia niretzat, honengatik hasita pasa nintzelako igeriketarik triatloira.

Duatloia, triatloiei begira egiten dudana proba izaten da, “kalitatezko entrenamendu saio” bezala hartzen dudana, lehiaketa egotzaren ematen baita. Krossak ere helburu honekin egiten ditut.

Raid-a entzutean berriz, zuzenean nebarekin erlazioan izaten dut, berarekin egin baititut raid guztiak; oso esperientzia polita, berezia eta zaila definitzeko. Kirola, lehiakortasuna eta nebarikortasuna dudana.

harreman ona baten dituen kirol proba da. Ezingo nuke bat edo beste aukeratu; denak dira ezberdinak eta denek dituzte bere alde on eta txarrak, baina batzuk dituzten “hutsak” besteez.

ongi betetzen dituztela uste dut.

Pena bat da, adibidez, triatloiak eta akuatloiak uda partean bakarrik egin ahal izatea (ulergarria eguraldiagatik), baina horretarako egiten ditut negu partean aurrez aipatutako krossak eta duatloiak.

Raid-ak berriz, oso gustuko ditudan probak izan arren, hauek lehiakor izateko eta lehiaketa horren barruan sartzeko, entrenamendu espezifikoagoak egin beharko nituzkeela uste dut (krossekin eta duatloiekin gertatzen den moduan), orientazio eta mendi bizikletako saioak bidez ere. Horregatik, momentu jakin batzuetan soilik egiten ditudan probak dira.

Kirolari bezala; nola definituko zenuke zure burua?

Burugogorra eta lehiakorra batez ere. Hainbat proben aurrean, nahiz eta nire egun horretako egoera onena ez izan (aste txarra pasa izanagatik edo beste edozein arrazoia dela eta), onena ematen saiatu izan naiz beti eta askotan nire harritu egin naiz egoera horietan lortutakoaz. Esperotako emaitzak ez lortzean ere, la-

“Aiaraldean momentuz ez dago triatloi talderik baina ez dut uste denbora asko pasako denik atera gabe”

nean gogor jarraitzen ahalegintzen naiz, hurrengo probetarako prestatzen.

Zenbat podium zapaldu dituzu 2013an? Zeintzuk?

Krossean: Audioko krossa (lehena) eta Arabako txapelketa (bigarren).

Duatloian: Basaurikoan (bigarren) eta Gernikakoan (bigarren). Triatloian: Bermeon (bigarren), Deban (bigarren), Hondarribin (bigarren), Ondarroan (bigarren), Aritzalekun (lehena), Lekeitio (hirugarren), Donostian, Onditx triatloian (hirugarren; EH-ko lehena), Gasteizko Challenge-an, taldeka (lehena), Iruñean (bigarren), Guadalajaran (lehena) eta Donostiko Wild Wolf triatloian (lehena). Akuatloian Plentzian (lehena).

Nolakoa da zure entrenamendua saio bat?

Normalean, egun bakoitzeko bi saio egiten ditut: korrika+igeri, korrika+rodilloa, rodilloa+igeri... bizikletako irteerek denbora gehiago eramaten didatenez, asteburuetarako uzten ditut. Baina

saioak beti lan ordutegira moldatu behar izaten ditut eta, beraz, egunetik egunera oso ezberdinak izaten dira.

Nola piztu zitzazun triatloiarikiko zaletasuna?

Igeriketa bakarrik egiteaz pixkat asperturik nengoela, barne hartzen zuen beste kirolen bat bilatu nahi nuen. Korrika egitea ere oso gustuko nuen, 2009. urtean Plentzian egin zen akuatloia proba batera apuntatzea erabaki nuen (korrika+igeri+korrika). Oso esperientzia polita eta ilusioz bete ninduen proba izan zen, eta horik aurrera, errepideko bizikleta erostea eta hurrengo urtean triatloiak probatzen hastea erabaki nuen.

Kirolak zer eman dizu?

Bizi-ilusioa. Modu pertsonalean, beste modu batera “haztea” laguntzen nauena, urtetik urtera hobetzen jarraitzea.

Eta kendu?

Momentu batzuetan, hainbat gauza alde batera utzi behar izaten dira denbora hori entrenamenduari edota kirol probei eskaintzeko. Baina gustura egiten den “sakrifizio txikia” denez, ez nuke esango ezer kendu didanik; handiagoa da kirolak emandakoa kendutakoa baino.

Orain Zumarragako Urola KE taldean zaude. Eskualdean ba al da triatloi talderik?

Aiaraldean momentuz, ez dago triatloi talderik baina ez dut uste denbora asko pasako denik talderik atera gabe.

HOCKEYA:

Diru faltagatik uko egin dio Ganbegik Espainiako txapelketari

ERREDAKZIOA | Hector Borge Chozas

Ganbegi Hockey taldeak, otsailaren 1ean eta 2an Laudion antolatutako Espainiako Txapelketako Sektor Fasea jokatu ondoren, ezetz esan behar izan dio Ourensen egin den Gizonezko Lehenengo Mailako Espainiako Txapelketan parte hartzeari. Espainiako zortzi talde onenen artean egoteko aukerari, hain zuzen ere. Arrazoia, egoera ekonomikoa izan da. Laudion eta Donostian areto hockeyan jokatutako bi itzulietan lortutako emaitza onengatik lortu dute Ganbegiok sailkatzea.

Egun, klubak 90 federatu inguru ditu, eta eskola mailan beste hainbeste kirolari. Alabaina, entitate publikoen laguntzak ez dira asko, eta diru-sarrera pribatuak oso eskasak dira. Azken denboraldietan zehar, hockeyaren osasuna indarberritzeko ahalegin asko egin dira bai Arabako Hockey Federaziotik zein lehiaketa ofizialetan mantentzen diren klubetatik; parte hartzeke jardunaldiak, txapelketak, trebakuntza ekitaldiak eta bestelako ekintzak antolatuz. Arabatarrak eta Aiarra Hockey taldea desagertu ondoren Ganbegi da eskualdeko estatu mailan mantentzen den bakarra. Dena dela, talde berriak agertu dira Federazio eta Ganbegi jokalarien laguntzarekin ikastetxe ezberdinetan; Aretan, La Milagrosan, Audio Ikastolan, Latio-ran, baita beste herrietan ere, Luiaondan, adibidez. Emaitzei dagokionez ere ugariak dira eskualdeko hockeyak orain arte eskuraturako lorpenak. Horien artean dauka Emakumezko Lehenengo mailan 2001/02 denboraldian jasotako urrezko domina, Ganbegiren 7. postua 2011/2012 denboraldian Gizonezko Lehenengo Mailakoan, edo Aiarra Hockey Taldeko Belar Hockeyko Ohorezko Mailan jokatutako denboraldiak.

EBE Argindarra

Zerbitzua Euskaraz



- Argiketariak Aiara osorako.
- Argi instalakuntzak eta mantenimendua (etxebizitza, pabilioietan, industrigintzan eta herriko argietan)
- Argiketari Tituludunak eta Homologatuak



Ebe Argindarra



ebeargindarra@gmail.com



679.070.116



BITARLAN

INFORMATIKA ETA WEB ZERBITZUAK

T [+34] 946 450 034

E bitarlan@bitarlan.net

H ARAKALDO (BIZKAIA)

- Webguneen garapena
- Kudeaketa eta Web aplikazioen garapena
- Sakelako telefonoetarako aplikazioak
- Mahaigaineko aplikazioak eta multimedia
- Ostatze zerbitzuak eta domeinuak
- Satelite bidezko Interneta eta VoIP nekazar guneetarako

TEKNOLOGIA BERRIAK EUSKARAZ... EUSKARA TEKNOLOGIA BERRIETAN

www.bitarlan.net





_kirola

ZIKLOKROSSA: Gotzon Martin orozkoarrak 31. postua lortu du Mundialean

Gotzon Martin orozkoarra junior kategorian munduko 31. sailkatzea lortu du. Espainiako selekzioarekin lehiatu da Martin. Ez da hori izan, ordea, lortutako gauza bakarra. Izan ere, taldekako sailkapenean bosgarren bukatu dute txapelketa.

Probaurtarilaren 31n jokatu zen Hoogerheiden.

MENDIA: Lunada-Castro irteera antolatu du larunbatean Ganzorrotz mendi taldeak

Artziniegako Ganzorrotz taldeak Lunada Castro Valnera ibilaldia egingo du larunbatean. Ibilaldian parte hartzeko beharrezkoak izango dira mendi-skiak, rake-tak edo kranpoiak. Kotxeetan egingo dute bidaia, 08:00etan aterata frontoitik. Ostiralean eguraldiaren arabera erabakiko dute joan edo ez.



TXAKURKROSSA: Felipe Larrazabalek Zumaia eta Tolosako kanikross probak irabazi ditu

Felipe Larrazabal okondorak Zumaia eta Tolosako kanikross lehiaketak irabazi ditu. Bi probak Gipuzkoako txakurkross biraren barnean kokatuta daude. Zumaia-koan, 7 kilometroko bidea egin behar izan zuten. Bigarrenari 3 segundu atera zizkion, 27:02 minutuko denborarekin.



Julen
Reketa
MENDIZALEA

_Helmugari so

Telefonoaren jabe edo morroi

Duela lau urte, 2010ko negu amaieran, Laudioko udal euskara arloaren babesaz, "Mendiak eta Herria" mendigidari elkarte eta Laudioko ikastetxeen laguntza eta parte hartzearekin DBH ikaslegoari zuzenduriko "Oxigenoa Euskarari" programa martxan jarri genuen, euskara jolastokietatik atera eta naturagunera zabaltzeko asmoz.

Lehenengo urteetan hitz egiten, abesten, zarata egiten, sakelako telefonotik musika entzuten, bus gidariak ipintzen duen filma ikusten edo lo egiten pasatzen zuten gazteek autobus bidaia baina orain sarritan esandakoak aparte teknologiak lagun arteko sareetan mezuak jasotzeko aukera ematen die eta begiak pantailatik urrundu gabe egoten dira.

Jokabide hau autobus bidaietara mugatzen bada ez da kezagarria baina naturaz gozatzaren ari diren bitartean gazteen arreta aparatu hauengatik xurgatua baldin bada, arriskua dago; jardueraren osagaiek eskaintzen duten hainbat estimulu ezberdin garatzeko ahalmena murrizten delako.

Hemen azaleratzen da nire ardura eta hausnarketa: posiblea al da lortzea gazteen partetik erabilpen egokia? Guraso, hezitzaile eta dinamizatzaileen lana jokoan sartzen da, elektronikaren abantailak eta desabantailak erakustea, haien onuraz epe ertain-luze batera, erabilera egoki eta osasuntsua egiten jakin dezaten.



Ellakuriko zelaietan jokatu zen proba igandean Argazkia: Aitor Burgoa

ATLETISMOA: Sanz eta Fernandez garaile Euskadiko kross txapelketan

ERREDAKZIOA

Igandean jokatu zen Laudioko Ellakuriko zelaietan Euskadiko kross txapelketa. Emakumeen artean Ainhoa Sanz izan zen aurrenekoa helmuga zeharkatzen. Gizonezkoetan, aldiz, Iban Fernandez izan zen azkarrena. Bederatzi kategorietan lehiatu ziren korrikala-

riak: kadeteak, jubenilak, juniorrak, seniorrak eta absolutoak.

Bi ibilbide

Antolatzaileek, bi ibilbide mota prestatu zituzten. Lehenengoak, 670 metro izan zituen; eta bigarrenak 2.023.

Peli Ortiz de Zarate Laudio Atletismo Klubeko kidearen esanetan, ibilbideak malda izan zuen protagonista nagusi. Izan ere, Ellakuriko zelaietan gora eta behera aritu ziren parte hartu zuten 700 lagunak.

Korrikalariak ez ezik, ikusle mordoa gerturatu ziren. "Jendea oso pozik geratu zen", erantsi du.

Kadeteen mailan Miren Aranburu eta Pablo Maldonado izan ziren lehenengoak. Jubeniletan Garazi Lekunberri eta Jabier Manso; juniorretan Maria Ibañez eta Iker Beristain.

Peli Ortiz de Zarateren esanetan ikusmira gehien eragin zuen proba absolutuena izan zen. Gizonezkoen kategorian apenas egon zen sorpresarik, Iban Fernandezek seigarren aldiz irabazi baitzuen Euskadiko Kross txapelketa. Emakumezkoen artean, ordea, lehia estua izan zuten.

Euskadiko krossa izaki, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lasterkariak soilik har dezakete parte. Haatik, nahiz eta denborarik onena Santutxu taldeko Trihas Gebre Aunoon eta Majida Maayouf-ek lortu, Ainhoa Sanzieman zioten aurreneko saria. Haren atzetik sailkatu ziren, hurrenez hurren, Penelope Raquel Baños eta Ainhoa Murua.

Absolutu mailako gizonezkoen artean, aldiz, Iban Fernandezek zapaldu zuen lehenbizikoz meta. Haren atzetik sartu ziren Jean Louis Pierrat, Unai Arroyo, Abdelilah El Manaia eta Eneko Agirrezabal. Alabaina, bertakotasun irizpideagatik Iban Fernandezek, Unai Arroyok eta Eneko Agirrezabalek jaso zuten saria.

"Atzeritarrek ere parte har dezakete, baina irabazi ez", azaldu du.

Klubaren arteko lehiari dagokionez, Santutxu, Goierri eta La Blanca sailkatu ziren, hurrenez hurren.

Eskualdeko korrikalarietako artean, Itxaso Escondrillas, Ibone Sanchez edo Andoni Etxezarraga aritu ziren, besteak beste.

Datorren astean, umeen txanda

Otsailaren 23an Umeen Euskadiko Krossak hartuko dio lekukoa atletismoko lehiaketari. Izan ere, eskola mailako korrikalariak jasoko ditu Laudioko Ellakuriko zelaia; "otsaila hilabete potentzia izaten ari da".

Ortiz de Zarateren aburuz berriro 500-600 parte hartzaile hurbilduko dira. Antolaketa lanetan, ordea, Laudio Ikastolaren laguntza izan dute. 2011tik hezigunea da txapelketa prestatzearen ardura duna.

Lehiaketaren ezaugarriak dagokionez, ibilbide antzerakoa izango dutela aurreratu du klubeko kideak: "Umeak ere profesionalak bezala ibiliko dira. 500 metro inguru korritu beharko dituzte".

Lasterketa ezberdina izango dela ziur du, ordea: "Herri lasterketa ere egingo da, jende ezagunarekin".

Lehia 10:30ean hasiko da, eta eguerdi arte iraungo duela pentsatzen du Ortiz de Zaratek.

***info: argazkiak:** Euskadiko Kross txapelketako bilduma.



ESPEZIALISTAK
GARELAKO DUGU
PREZIORIK ONENA
EGIAZTATU EZAZU

ondasunegi

94 672 08 32
Karmen 25, 01400 LAUDIO/Araba
info@ondasunegi.com

·Kudeaketa Software·

·Cloud· ·Backup· ·Sareak·

·Telekomunikazioa·

algitech
informatika zerbitzuak

www.algitech.net • Tfno: 94.404 44 95

_irakurlearen txokoa

_agenda

02.13 OSTEGUNA

18:00 OKONDO
EZTABAIDA
Euskalgintzako
diagnostikoa
Meson tabernan

19:00 LAUDIO
HITZALDIA
Tortura Euskal Herrian
Erabilera anitzeko gelan

19:00 URDUÑA
ASANBLADA
16.gazte eguna
prestatzeko
gaztetxean

02.14 OSTIRALA

17:30 URDUÑA
IKASTAROA
Euskal dantzak
Gaztetxean

18:00 OROZKO
ASANBLADA
2014ko San Antolinak
antolatzeko bilera
Kultur etxean

19:00 AMURRIO
TAILERRA
Garaian garaiko
sukaldaritzza eta afaria
Hauspoa elkartearen

02.15 LARUNBATA

10:00 AMURRIO
IKASTAROA
Umeentzat ikastaroa
Kultur etxean

17:00 LAUDIO
ERAKUSKETA IREKIERA
Ipar Hegoalde elkartearen
Kultur etxean

20:00 AMURRIO
ANTZERKIA
Far West
Amurrio antzokian

17:30 LAUDIO
TAILERRA
Sorgin zapatuak:
Papiroflexia eskulanak
Kultur etxean

20:00 LAUDIO
KONTZERTUA
Maraca para dos
Keska tabernan

20:00 LAUDIO
KONTZERTUA
A.Emblem, Hurra eta
Despefiaperros
Orbeo etxean

20:30 LAUDIO
KONTZERTUA
Nurat gazte abesbatza
elizan

22:30 LAUDIO
KONTZERTUA
Mankaos
Drumgorrin

02.16 IGANDEA

08:30 LAUDIO
IBILALDIA
Rokopolisera, Iruñeako
eskalada
Bus geltokitik

09:00 OKONDO
IBILALDIA
Malkuartutik Tologorriara
Malkuartuko
bidegurutzetik

10:00 AMURRIO
IBILALDIA
Amurrioko txirrindulari
elkartearen irteera
Juan Urrutia plazatik

02.18 ASTEARTEA

19:00 LAUDIO
JAIK
Jaietako asanblada
Kultur etxean

02.19 ASTEAZKENA

16:30 AMURRIO
TAILERRA
Munduko sukaldaritzza
Aurrerakaren egoitzan

16:30 LAUDIO
TAILERRA
Alai bizitzen ikasteko
tailerra
kultur etxeko Solastiarren
gelan

02.20 ASTEAZKENA

09:00 LAUDIO
IKASTAROA
On line marketinga
Garapen Agentzian

02.21 OSTIRALA

16:30 AMURRIO
TAILERRA
Munduko sukaldaritzza
Aurrerakaren egoitzan

19:00 AMURRIO
HITZALDIA
Kontsumo taldeak, izaera
eta funtzionamendua
Hauspoa elkartearen

23:00 LAUDIO
KONTZERTUA
Mandoilek
Sorgin tabernan



22:30 URDUÑA
KONTZERTUAK
Itxaropen Zikina, 30.06
eta Habemus papam
Gaztetxean

02.22 LARUNBATA

10:00 LAUDIO
IKASTAROA
Arrisku handiko
elikagaien manipulazioa
Gurutze gorrian

10:00 AMURRIO
IKASTAROA
Umeentzat ikastaroa
Kultur etxean

10:00 LAUDIO
JAIALDIA
Elkartasun karabana
Laudiotik Sahara
Baia kalean

10:00 URDUÑA
MOBILIZAZIOA
Libre eguna: Kotxe
karabana audiora
Gizarte etxetik

12:00 AMURRIO
TAILERRA
Munduko sukaldaritzza
Aurrerakaren egoitzan

13:30 LAUDIO
EKITALDIA
Aiaraldeko Libre eguna
Herriko plazan

02.23 IGANDEA

08:30 ARRANKUDIAGA
IBILALDIA
Kanporamartxo
Gizarte etxetik

10:00 AMURRIO
IBILALDIA
Amurrioko txirrindulari
elkartearen irteera
Juan Urrutia plazatik

10:00 LAUDIO
TXAPELKETA
Umeen Euskadiko kross
txapelketa
Ellakurin

02.26 ASTEAZKENA

19:00 LLAUDIO
ASANBLADA
Auzo asanblada
Arraño aretoan

_ikusmiran

ZINEMA

02.16 IGANDEA

“ERNEST ETA CELESTINE”
AMURRIO ANTZOKIAN
17:30etan (3.60€)

“EL HOBITT, LA DESOLACION
DE SMAUG”
OROZKOKO DONIBANE ARETOAN
18:00etan (3€ umeek, 4€ helduek)

“LA VIDA SECRETA DE WALTER
MITTY”
AMURRIO ANTZOKIAN
19:30etan (4.80€)

02.17 ASTELEHENA

“LA VIDA SECRETA DE WALTER
MITTY”
AMURRIO ANTZOKIAN
20:00etan (3.60€)

02.23 IGANDEA

“CAMINANDO ENTRE
DINOSAURIOS”
OROZKOKO DONIBANE ARETOAN
16:30etan (3€ umeek, 4€ helduek)

“LLUVIA DE ALBONDIGAS II”
AMURRIO ANTZOKIAN
17:30etan (3.60€)

“EL LOBO DE WALL STREET”
OROZKOKO DONIBANE ARETOAN
19:00etan (3€ umeek, 4€ helduek)

“DE TAL PADRE, TAL HIJO”
AMURRIO ANTZOKIAN
19:30etan (4.80€)

02.24 ASTELEHENA

“LA VIDA SECRETA DE
WALTER MITTY”
AMURRIO ANTZOKIAN
20:00etan (3.60€)

02.25 ASTEARTEA

“LA LEYENDA DEL PIANISTA
EN EL OCEANO”
KESKA TABERNAN
21:30etan

BEREZIAK

KINTOAK

AMURRIO

02.14. OSTIRALA. 09:00
Kintoak, lantegietan kantari
TOKIA: Herrian zehar

02.14. OSTIRALA. 11:30
Ikastetxeetara bisita
IBILBIDEA: Zabaleko, Lucas Rey,
Aresketa Ikastola, Virgen Niña eta
Zaraobe Institutua



02.14. OSTIRALA. 13:30
Herriko kantaldia
TOKIA: Juan Urrutia plazan

02.14. OSTIRALA. 19:30
**Kun-kun batukadarekin
kalejira**
TOKIA: Herrian zehar



02.14. OSTIRALA. 22:00
**Aizkorakada, Akerbeltz eta
Landazuri Bass Fundation**
TOKIA: Juan Urrutia plazan

02.15. LARUNBATA. 0:00
Kintoen azken kantaldia
TOKIA: Juan Urrutia plazan



PISUA SALGAI LAUDION
Prezioa: 185.000 €
65 m², 2 logela, 2 bainugela, balkoia,
trastelekua, igogailua, altzariz hornitua,
bizitzera sartzeko, 2004ko eraikuntza.
Erref.: 167399

**ATXIKITAKO ETXE BERRIAK
ARAKALDON**
Prezioa: 315.000 €
137 m², 3 logela, 3 bainugela, sukaldea,
eraikuntza berria, bi autoentzako garajea,
lorategia.
Erref.: 167390

PISUA SALGAI OKONDON
Prezioa: 155.000 €
57 m², 2 logela, bainugela, komuna,
bizitzera sartzeko, kanpoaldera,
igogailua, garajea, terraza, trastelekua,
negoziagarria.
Erref.: 167185

PISUA SALGAI OROZKON
Prezioa: 150.000 €
Baserrin baten barruan dagoen pisua:
95 m², 3 logela, bainugela, balkoia,
eraberritua.
Erref.: 159161

PISUA SALGAI LUIAONDON
Prezioa: 150.000 €
64 m², 2 logela, bainugela, egoera onean,
guztiz eraberritua.
Erref.: 99794

PISUA SALGAI ARTZINIEGAN
Prezioa: 150.000 €
90 m², 3 logela, bainugela, komuna,
kanpoaldera, balkoia, igogailua, egoera
onean.
Erref.: 156344

PISUA SALGAI ARRANKUDIAGAN
Prezioa: 155.000 €
65 m², 2 logela, bainugela, kanpoaldera,
igogailua, egoera onean, altzariz hornitua.
Erref.: 167227

www.etxaurre.com
Tlfnoa: 94 672 85 50

_ezin galdu



KUADRILLARTEKOA SARATXOKO TXOKOAN: Larunbatean 14:00etan Amurrio eta Legutioko taldeekin bertso bazkaria egongo da. Izena emateko 606895739 telefonora deitu behar da. Bazkariak 15 euro balio du.



KULTUR TOPAKETA GASTRONOMIKOAK AMURRION: Aurreraka emakumeen taldeak Kulturen arteko Topaketa Gastronomikoak antolatu ditu otsailaren 19, 21 eta 22rako.

_kontra

aiaraldea



Ainhoa
Comas
BERTSOLARIA

_Leihotik

Hitz hutsak

Julia Barberena Irigoien Okina

“Jendeak uste du baserria gauza pobrea dela, baina ez da horrela. Niri asko eman dit”

JULIA BARBERENA IRIGOIENek (1941, Orozko) 43 urte daramatza Presatxu auzoan baserriko ogia egiten. Egurrezko labean egiten dute, lehengai naturalekin. Ogia izatea jende guztiari opa dio.

ERREDAKZIOA I Izar Mendiguren
Julia Barberenak Presatxuko ogia egiten du. Lanbidearen azala eta mamia kontatu ditu.

Zugarramurdin hazi eta Orozkon bukatu. Nolatan?

Epaltzarrek etxe bat zuten eta hona etorri nintzen. Hor eza-gutu nuen Pablo. Eta, badirudi hezurak hemen utziko ditudala.

Gautxorien ordutegian egiten duzue lan, gogorra al da?

Lehen gaueko hamabietan hasten ginen, 14:00-15:00ak arte. Orain, goizeko lauretan altxatzen naiz. Ez nuen nahi zahartu, baina tokatu egin zait.

Ogi gogorrari hagin zorrotza dio esaera zaharrak...

Ez da hainbesterako. Lanbidea asko gustatzen zait, bizitza asko eman dit, horregatik ez zait gogorra egiten. Ogia egiten 1971an hasi nintzen, etxerako. 1977an ekin nion azoketan saltzeari.

Zenbat esku eta ordutako lana dago ale bakoitzaren atzean?

Gauean legamia botatzen diogu, eta zortzi ordu handitzen uzten dugu, lotan. Biharamunean balde bat hartu eta ore makinara botatzen da, gatza eta urarekin. Ondoren, irina botatzen zaio. Sukaldera ekartzen dugu gero, baldeetan ordu eta erdi handitzeko. Orduan hasten da ogia egiten. Labean sartu arte 4-5 ordu pasatzen dira. Altxatzen garenetik ez gara gertatzen, beti dago lana. Hiru pertsona egoten gara, nik jada gutxi egiten dudalako.

Eta eskari?

Ostegunetik larunbatera egiten dugu guk bakarrik. Gutxi gorabehera, 40-50 saltzen ditugu, jendeak eskatutakoaren arabera. Jada ez gara azoketara joaten, baina azokarik handienetan 350-400 saltzen genituen.

Ez zen Bilboko Santo Tomase-tan izaten, Basauriko San Faustotan baizik.

Baserriko ogien munduan ere urrutiko intxaurrak hamalau, gerturatu eta lau?

Ez pentsa, bada egiten duen jendea. Orozkon hiru gaude, Laudion geroz eta gehiago.

Zer du berezia Presatxuko ogiak?

Ezer, bera da, ez dugu sekreturik.

1750ekoa den egurrezko labean egiten dugu. Juan Aldaiturriagak zera esan zi-

dan: “Ogia zuk nahi duzun bezala egin behar duzu, ez guk nahi dugun bezala!”. Etxeko oilasko bat, libre dagoena egiten baduzu beti egongo da ona!

Zure ustez, nori ez litzaioke falta beharko ogirik?

Inori. Txinatar kulturen ez baina gurean ogia faltatzea triste da. Jendeak uste du baserria gauza pobrea dela.

Egia da, lan egin behar dela, baina ez da gauza txarra. Suari egurrik ez badiozu botatzen itzali egiten da.

Nik argi dut baserritik bizi daitekeela. Produktu kimikoak erabiltzen dituztenak ederragoak dira, baina ez dute gus-turik.



Graf!k
PROIEKTU GRAFIKOAK
PROYECTOS GRÁFICOS
GRAPHIC PROJECTS

enean
ileapandegia

Ondasunegi

KULTURA
ETXEA

ERROTULAZIOA, GUNEETARAKO GRAFIKA///
Telleria 2, LAUDIO
www.grafiksarea.com
Tel: 94 672 65 43

GUREKIN ERE EUSKARAZ!